

**hh**  
hik hasi

**Bolondres proiektua**  
**Zientzia-hezkuntza**  
**Ikastolak 2050**  
**Aberaste txokoa**  
**Nerabeekiko harremana**  
**Gipuzkoako parketxe sarea**  
**Iraia Elias**

5  
20  
5



“Gure herri nortasunaren eraikuntzan funtzio erreferentziala betetzen du mitologiak”

JUAN INAZIO HARTSUAGA

# ZIENTZIAREN ETA ESPAZIOAREN MUNDU LILURAGARRIAN MURGILTZEKO LIBURUAK



100  
KONTU ONDO  
EZAGUTZEKO

**ZIENTZIA**



Nire lehen  
**Espazioko**  
liburua



# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## BOLONDRES PROIEKTUA

Durangoko San Jose Jesuitak ikastetxean, Batxilergoko 2. mailako ikasleek boluntario-lanak egiten dituzte herriko hainbat elkarte eta egoitzatan. Besteak beste, etorkinekin eta adineko pertsonekin jarduerak egiten dituzte euren denbora librean.

ELKARRIZKETA / 16

## JUAN INAZIO HARTSUAGA

Mitologian aditua da Hartsuaga. Hamaika liburu eta artikulu idatziak ditu gaiaren inguruan, eta doktoretza-tesia ere egina du. Bere esane-tan, euskal kulturaren sustraiak gizartera daitezen nahi bada, gogoeta egin behar da mitologia-ikasketak hezkuntza-sisteman nola txertatu.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines

Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz.

**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.

**Diseinua:** GrafIk.

**Maketazioa:** Xangorin.

**Inprimategia:** ANTZA S.A.L

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2016-01-28).

Kopurua: 3.800 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratu-tako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Krisiak edo erronkak?

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Bolondres proiektua. Ikasleak, beharra dutenen bidelagun

16 ELKARRIZKETA

JUAN INAZIO HARTSUAGA

“Herri nortasuna herriaren baitan transmititzen diren balioek osatzen dute. Egiteko hori mitologiarena zen lehen, eta gaur egun eskolarena da”

24 ESPERIENTZIAK

Zientzia-hezkuntza

26 EKARPENAK 1

Ikastolak 2050

30 EKARPENAK 2

Aberaste txokoa

34 GALDEIDAZU

ANE ABLANEDO

Zer izan behar dugu kontuan, ikasgeletan nerabeekiko elkarbizitza eta harremana osasuntsuak izan daitezen?


39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Gipuzkoako parketxe sarea

42 ATZEKO ATETIK

Iraia Elias



# Bidaia pedagogikoa ESTONIAra

**Martxoaren 28an**, Bilbotik Tallin-era bidaia.

**Martxoaren 29an, 30ean eta 31n**, Estoniako hezkuntza sistema ezagutzeko hitzaldiak jasoko dira; Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako eskolak bisitatuko dira; Irakasleen formakuntza ezagutuko da, eta abar.

**Apirilaren 1ean**, bidaia turistikoa Riga-ra (Letonia).

**Apirilaren 2an**, Riga-tik Bilbora.



Otsailaren 21a  
arte eman liteke  
izena

Informazioa eta izena ematea: [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)

# Krisiak edo erronkak?

## editoriala

XXI. MENDEA AURRERA DOAN HEINEAN, ERRONKA BERRIAK ARI ZAIZKIGU AGERTZEN. SARRI, 'KRISI' HITZAREKIN ZERRENDATZEN DITUGUN HORIEK, HAIN JUSTU. BATZUENTZAT 'KRISI' DIRENAK BESTEENTZAT 'ERRONKA' BAITIRA.



**K**risi ekonomikoa, demokraziaren krisia, balioen krisia, hezkuntzaren krisia, justiziaren krisia, ekologiaren krisia... Azken aldian dena da krisia. Lehengo denborak, atzean utzitako garaiak idealizatzeko dugun joeraren ondorio izango da akaso alderdi guztietan krisia ikustea.

Askotan, badirudi lehen dena zela hobea, baina gizakiak aspalditik du hobeto bizitzeko nahia, aurrera egiteko grina. Gakoa da, ordea, "hobeto bizitzearen" zera hori nola ulertzen dugun. Zein baliotan oinarritzen garen hitzetik hortzera darabilgun "mundu hobea" eraikitzeko.

Edozein kasuan, badirudi XXI. mendea aurrera doan heinean, erronka berriak ari zaizkigula agertzen. Sarri, "krisi" hitzarekin zerrendatzen diren horiek guztiak, hain justu. Batzuentzat "krisi" direnak, beste batzuentzat "erronka" izan baitaitezke.

Paradigma-aldaketaz eta gizaki berrituaz mintzo da Iosu Txapartegi maisua aldizkari honetan jorratutako *Ikastolak 2050* liburuan. Denentzat ona izango den mundu bat nola eraiki daitekeen pentsatu behar dela dio, eta, horretarako, hezkuntzatik hasita balio positiboak indartu behar direla. "Adibidez, umea senti dadila gustura besteari laguntzen diotenean, eta ez bestea baino gehiago denean".

Hain zuzen ere, begirada bestearengan zen-

tratuz, inguruan eta munduan gertatzen den horren gaineko arduraren hartzeko Bolondres proiektua jarri dute abian Durangoko San Jose Jesuitak ikastetxean. Proiektuko arduradun Aitziber Agirrek aldizkariko gai nagusian azaldu bezala, bestea, aldamenekoa, hau da, hor egon arren sarri ezezaguna zaigun hori erdigunean jartzea da proiektuaren gakoa: "Eskolan nahiko ondo lantzen dugu pertsonaren ezagupe-naren gaia: zeure burua ezagutu, zeure nahiak eta desioak... Baina ez dugu hainbeste jartzen begirada bestearengan. Xedea da ez pentsatzea bakarrik nigan, nire amets eta desioetan, baizik eta 'zer behar du mundu honek nigidandik?' galdetzea geure buruari".

Izan ere, Txapartegik gogoratzen duen moduan, haur bakoitzari etorkizun duina ziurtatzea da hezkuntzaren helburu nagusienetako bat. Baina horrekin bakarrik ez da nahikoa. Baldintza sozial egokiak sortzea ere nahi-taetzkoa izango da bizimodu duin bat ziurtatu nahi badiogu datorrenari.

Hezkuntzaren egiteko gisa balioen transmisioari sekulako garrantzia ematen dio aldizkari honetan elkarriketatutako Juan Inazio Har-tsuaga antropologoak ere. Euskal mitologiaren ikerketan urtetan egindako lanetik egiten du ekarpena, ez herri-nortasun fosil baten esklabu izateko, baizik eta errealitateaz kontziente izan-nik, gaurko eta etorkizunerako zein eredu nahi dugun denon artean erabakitzeko.

---

**"Gogoan dut Mexiko DFko alkateak esan zidana: "Haurrek ematen dute segurtasuna, ez poliziak". Haurrengan poliziarengan baino konfiantza handiagoa izatea iraultzailea da." Francesco Tonucci**



## BIZKAIKO HIK HASI ELKARTEA SORTU DA

Urtarrilaren 19an, irabazi-asmorik gabeko Hik Hasi Bizkaia euskal heziketarako elkarte sortu zen Leioako EHUren Irakasle Eskolan egindako ekitaldian. Elkarte berriaren lehendakari Eider Palmou bilbotarra izendatu da. Hasteko, Hik Hasi egitas-moa ezagutarazteko zereginean, eta ekainaren 28an, 29an eta 30ean Leioako EHU egingo diren Bizkaiko Hik Hasi Udako Topaketan antolaketan murgilduko da elkarte.

## ADOSTASUNIK EZ IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN INGURUAN

Nafarroako Gobernuaren osatzen duten lau alderdiak ez dira ados jarri irakasle postuak betetzeko urtarrean egin beharreko lan deialdi publikoan eskatutako hizkuntza gaitasunen inguruan. Beraz, Nafarroako Hezkuntza Sailak hasieratik egin duen proposamenari eutsiko dio eta, horrenbestez, 228 postutan euskara eskatuko da eta beste 92 postutan gaztelania. Probak ekainean egitea da asmoa.

## Otsaileko bigarren astetik egin daizteke eskaerak BHko irakasle-plazetarako

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak deialdia egin du Bigarren Hezkuntzako 577 irakasle-plaza betetzeko. Otsailaren bigarren astetik aurrera eskaerak egin eta meritua aurkezteko epea irekiko dute. Ondoren, martxoaren erdialdetik aurrera aurkeztu beharko da programazio-didaktikoa. Oposizio faseko lehen proba, berriz, ekainaren bigarren hamabostaldian egingo dute.

Hautaketa-prozesuko lehen proba horretan, plaza horretako espezialitateari dagokion gai-zerrenda batetik gaitako bat garatu beharko da, idatziz. Horretaz gain, ariketa praktiko bat egin beharko dute aurkezten direnek. Proba hori kanporatzailea izango da. Gai-dituztenek bigarren proba bat egingo dute.

Orain eskainiriko 577 plaza horietatik gehienak hizkuntzekin loturikoak izango dira: 84 plaza Euskara eta Literatura espezialitatekoak dira, 80 Ingeleskoak eta beste 74 plaza Gaztelania eta Literatura espezialitatekoak. Gai-nontzeko plazak modu honetan banatzen dira: 61 plaza Biologia eta Geologian, 57 Matematikan, 54 Geografia eta Historian, 36 Teknologian, 33 Fisika eta Kimikan, 29 Gorputz Hezkuntzan, 16 Frantsesean, 14 Latinean, 13 Musikan, beste 13 Informatikan, 9 Hezkuntza Orientabidean eta, azkenik, 4 plaza Ekonomian.

# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

## LH-KO 3. ETA 6. MAILAKO AZTERKETEI PLANTO EGITEKO ESTRATEGIA LANDU DUTE

Hezkuntza Plataformen Topaguneak urtarrilaren 16an Gasteizen batzarra egin zuen Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailetako azterketei planto egiteko zenbait estrategia lantzeko. Topagunearen arabera, azterketa horiek LOMCEren baitako "inposizio" dira eta eredu erabat antipedagogikoa dute oinarri, ikasleak "zenbaki huts izatera kondentzen" dituztelako.

Horrexegatik, azterketoi planto egiteko hainbat bitarteko jarriko dituzte martxan; hala nola, hitzaldi informatiboak egingo dituzte ikastetxe, auzo zein herrietan; iaz bezala familiak "objektore" egitera bultzatuko dituzte ikasleei azterketa egiteko baimenik eman ez diezaieten; eta azterketa hauen kontrako idazkiak onartuko dituzte Eskola Kontseiluan eta Artezkaritza Kontseiluetan.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari interpelazioa egingo die Topaguneak azterketak ez aplikatzeko eskatzeko: "Entzun ezazue iaz eta baita aurten ere familiek, hezkuntza komunitateak eta HPT-k bidalitako mezua. Ez itzazue azterketa hauek aplikatu. Azterketen inguruko beharrezko informazio guztia garrantasunez zabaldu ezazue. Planto egin diezaiogun elkarlanean herri gisa LOMCE lege inposatuari LOMCE aplikatzeko hautuan jarraituz gero, planto tinko eta orokortua bultzatu eta eramango dugu aurrera", azaldu dute.

## Erretiroa hartu ondoren ere lanean



EAEko Lanbide Heziketako irakasle erretiratu talde batek Zahar eta Gazte elkarteak sortu du, Euskadiko Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoetako Irakasle Erretiratuen Elkarteak. Beraien helburua da erretiroa hartu ondoren ere Lanbide Heziketako ikastetxeekin nahiz bertako irakasleekin elkarlanean jarraitzea. Horrekin batera, laguntza eman nahi diete beraien enpresa sortzeko pausoak ematen ari diren ikasleei ere.

Irakasle horiek urte luzetako esperientzia dute, ondo ezagutzen dute Lanbide Heziketak azken hamarkadetan egindako ibilbidea, eta alor horretan eraldaketa bultzatzeko eragile aktibo izan nahi dute orain. Elkartearen aurkezpenean Jorge Arevalok, Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketako sailburuordeak, gogorarazi zuen datozen urteetan Lanbide Heziketako irakasle askok hartuko dutela erretiroa, horiek guztiak "esperientzia handia duten irakasleak, eta gure ekonomiarentzat nahiz enpresentzat funtsezko lana betetzen dutenak". Beraz, irakasle horien ezagutza ez galtzea izango da erronka, Arevaloren ustez. Bere esanetan, ikastetxeetako proiektuetan nahiz irakasle gazteen formazioan lagunduko dute elkartearen bidez.



## ORAINDIK BADA TOKIA AMARA BERRI HEZKUNTZA-PROIEKTUA EZAGUTZEKO EGINGO DEN JARDUNALDIAN



Otsailaren 26an eta 27an Amara Berri sistema ezagutzeko aukera izango da, Donostiako Morlanseko eraikinean dagoen zentroan bertan egingo den lan-saioan. Ostiralez, 18:00etatik 20:30era proiektuaren aurkezpen orokorra egingo da. Larunbatean, berriz, 9:30etik 11:30era taldeka banatuta landuko dira gaiak: Matematika eta Zientzia; Hedabideak eskolan; Hizkuntzen trataera; eta Haur Hezkuntza. Azken bi arloak beteta badaude ere, Matematikaren eta Hedabideen sailean bada oraindik tokia. Saioa amaitzeko, 11:30etik 13:30era, ikasle guztiek elkarrekin kezka argitzeko eta ekarpenak egiteko aukera izango dute.

Otsailaren 21 arte irekita dago jardunaldian izena emateko epea. Informazio gehiago eskuratzeko nahiz matrikula egiteko [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunera jo behar da edota 943 371408 telefono zenbakira deitu.

## ETXERAKO LANEN ERREGULAZIOA ESKATZEKO KANPAINA ABIATU DUTE

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari etxerako lanen inguruko erregulazioa eskatzeko asmoz, hainbat lagunek plangintza bat osatu dute EHIGEREkin batera. Urtarriletik martxan dago plangintza horren lehenengo fasea: Etxerako lanei buruzko informazio-kanpaina, hain zuzen, EHIGERen webgunean zintzilikatu dutena.

## GIZA ESKUBIDEEI ETA GATAZKEN KUDEAKETARI BURUZKO ON LINE IKASTAROA

Alboan elkarteak eta Deustuko Unibertsitateak antolatuta, giza eskubideei eta gatazken kudeaketari buruzko on line ikastaroa egingo da martxoaren 1etik ekainaren 5era. Bi helburu nagusirekin antolatu dute formazioa: batetik, ikastetxeetan giza eskubideak eta bakerako hezkuntza lantzeko oinarriko ezagutza teoriko-praktikoak eskaintzea; eta bestetik, hezkuntza arloan sortzen diren gatazkek era positibo batean kudeatzeko ezagutza teoriko-praktikoak eskaintzea.

Irakasleei, magisteritzako nahiz gizarte hezkuntzako ikasleei eta hezitzaileei zuzendua dago ikastaroa, eta lau bloketan banatu dute, orotara 50 ordu osatuz. Lehenengo blokean, giza eskubideak eta bakerako hezkuntzari buruzko sarrera egingo da (7 h.); bigarrenetan, giza eskubideak eta bakerako hezkuntza ikastetxean eta gelan nola kudeatu landuko da (13 h.); hirugarren blokean gatazken kudeaketa positiboari buruzko sarrera egingo da (7 h.); eta amaitzeko, laugarrenean, gatazken kudeaketa positiboa ikastetxean eta gelan nola egin landuko da (13 h.). Horrez gain, kurtsoan zehar 2 orduko hautazko bi saio presentzial egingo dira (martxoan eta ekainean), eta derrigorrezko 4 orduko saio bat (apirilean).

Ikastaroan izena emateko [a.gonzalez@alboan.org](mailto:a.gonzalez@alboan.org) helbidera idatzi edota 944 151 135 telefono zenbakira deitu behar da.



# HIZPIDE IZANGO DA

## HEZKUNTZA-BIDAIA EGINGO DA ESTONIARA MARTXOAREN 28TIK APIRILAREN 2RA

Estoniako hezkuntza-sistema ezagutzeko bidaia antolatu du Hik Hasik martxoaren 28tik apirilaren 2ra. Bertako hezkuntza-marko orokorra ezagutzeaz gain, helburua da Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako eskolak bisitatzea, baita irakasleen formakuntza nolakoa den ezagutzea ere.

Lehen egunean, martxoak 28, Bilbotik Tallinera egingo da bidaia. Hurrengo hiru egunetan berriz, eskolak eta hezkuntza-erakundeak bisitatuko dira. Eta azkenik, apirilaren lehen Tallindik Rigara bidaia turistikoa egingo da, eta apirilaren 2an, Rigatik Bilbora itzulera.

Zergatik hautatu da Estonia? Euskal Herriaren antzera ez delako oso herrialde handia, hizkuntza propioa duelako, herrialdearen antolaketan hezkuntzak garrantzia handia duelako, hezkuntza-sistema parte-hartzailea eta deszentralizatu duelako, nazioarteko neurketetan hezkuntza-emaizta onak eskaintzen dituelako, eta beste hainbat arrazoigatik.

Bidaiaren prezio arrunta 1.350 eurokoa da; harpidedunentzat, berriz, 1.250 eurokoa. Prezio horretan honakoa dago sartuta: Euskal Herriaren eta Estonia-Letoniaren arteko joan-etorriak; Tallineko hotela biko geletan eta gosariak; Estonian jasoko diren hitzaldiak; eskoletarako bidaiak, bisitak eta eguerdietako bazkariak; bisita turistikoa; eta estonieratik euskararako itzulpenak.

Izen-ematea irekita dago eta [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunean egin daiteke, otsailaren 21 arte.



## 'HAUR-HEZKUNTZA 0-6' GAIA LANDUKO DUTE NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN JARDUNALDIETAN

Martxoaren 8tik 11ra, 17:30etik 20:00etara Nafarroako Eskola Kontseiluaren XVII. jardunaldiak egingo dira Nafarroako museoa. Aurten *Haur Hezkuntza 0-6* gaia jorratuko dute. Martxoaren 8an praktika honen inguruan Migel Angel Zabalak emango duen hitzaldiarekin hasiko da jardunaldia. Bigarren egunean, Mendillorri eta Jauntsaras haur-eskolek euren praktikaren berri emango dute. Amaitzeko, martxoaren 11n, Marina Mori Reggio Emiliako hezitzaileen formatzaileak eta Reggio Children-eko kideak familiaren eta eskolaren arteko harremanen inguruan hitz egingo du.

## EZTABAIDA IREKIA 'GURE NORTASUNA' LIBURUXKAREN GAINEAN

Martxoaren 7an, Hik Hasik antolatuta, eztabaida irekia egingo da aldizkari honekin batera banatu den *Gure nortasuna* Juan Inazio Hartsuagak osaturiko hausnarketarako materialaren gainean. Saioa arratsaldeko 17:30ean izango da Donostian (tokia zehazteke dago). Doakoa da, baina parte hartzeko [hikhasi@hikhasi.eus](mailto:hikhasi@hikhasi.eus) helbidera idatzi edo 943 371408 telefono zenbakira deitu behar da.



Durangoko San Jose Jesuitak ikastetxean, Batxilergoko 2. mailako ikasleek boluntario-lanak egiten dituzte herriko hainbat elkarte eta egoitzatan. Izan ere, duela 7 urtetik hona Bolondres programa dute abian. Horren baitan, besteak beste, etorkinekin eta adineko pertsonekin jarduerak egiten dituzte, beraien denbora librea erabilia eta horrek azken notan inongo eraginik izan gabe. Modu horretan, justizia eta elkartasuna bezalako balioetan hezi nahi dituzte ikasleak. Ikasturterik akademikoenean, beren baitatik atera eta inguruan, munduan gertatzen diren arazoetara erakarri nahi dute gazteen begirada.

# GAIA: BOLONDRES PROIEKTUA

## Ikasleak, beharra dutenen bidelagun

U ne existenzial garrantzitsu batean” egon ohi dira Batxilergoko 2. mailako ikasleak, Durangoko San Jose Jesuitak ikastetxeko Aitziber Agirre irakaslearen esanetan. Ordu arte eskolak eta familiak osatu dute nagusiki beraien eguneroko markoa, baina mundura atera eta etorkizunean zein bide hartu erabakitzen hasteko unea iritsi zaie. Aldi berean, ordea, kanpora baino, barrura begira egon ohi dira ikasleak, eta euren buruengan jarria izaten dute arreta osoa: zein diren beraien nahiak eta desirak, zein interesak, zein kezak... “Momentu horretan oso zentratuta daude beraiengan: beraiek dira erdigunea, beraiek daude gutziaren erdian”. Beraz, nola ireki mundura, kanpoan dagoenari begiratu gabe?

“Eskolan nahiko ondo lantzen dugu pertsonaren ezagupenaren gaia: zeure burua ezagutu, zeure nahiak eta desioak... Baina ez dugu hainbeste jartzen begirada *bestearengan*: Zer gertatzen da nire inguruan? Zer gertatzen da munduan? Eta horrek nola eragiten du nigan eta nire erabakietan?” San Jose Jesuitak ikastetxeko irakasle talde batek, Agirrek tartean, pentsatu zuten ikasleei ariketa hori egiten ere lagundu behar zietela, “lagun hurkoa, hor egon arren ezezaguna zaigun hori, erdigunean jartzen, edo behintzat gure erabakietan aintzat hartzen. Ez pentsatzea bakarrik nigan, nire amets eta desioetan, baizik eta ‘zer behar du mundu honek nigandik?’ galdetzea geure buruari”, dio Agirrek.



Aitziber Agirre

Gainera, Batxilergoa oso etapa akademikoa da, Agirreraren irudiko, eta Haur edo Lehen Hezkuntzan ez bezala, Bigarren Hezkuntzan herriarekin kontaktu gutxi izaten dute ikasleek. Nahi zuten, beraz, mundura ez ezik ikasleak Durangoko herrira ere zabaltzea.

Hausnarketa horietatik abiatuta, duela zazpi ikasturte ikastetxean Bolondres proiektua jarri zuten abian. Horren arabera,

Batxilergoko 2. mailako hainbat ikasleek boluntario lanak egiten dituzte ikasturtean zehar herriko hainbat elkartetan, eskolak babestuta eta koordinatuta, baina beraien denbora librean. Besteak beste, Agirreraren ekimenari esker jarri zuten martxan egitasmoa, eta bera da gaur egun proiektuaren arduraduna.

### Etorkinak, ezinduak, adinekoak...

Erljio ikasgaiaren alternatiba da boluntariotza lana. Dena dela, “ez da hautazko ikasgai bat, izan ere ez baita ikasgai

## GAIA: BOLONDRES PROIEKTUA

Ikasleak, beharra dutenen bidelagun



Durangoko Jesuiten Etxean etorkinekin egiten dute boluntario-lana ikasleek.

bat ere". Nahi dutenek gauzatzeko aukera duten proiektu bat da. Batxilergoko 2. mailako ikasleen erdiak aukeratzen du, gutxi gorabehera, boluntario lana egitea.

Bolondres proiektua prozesu akademikoaren baitan txertatu dute, beraz, eta eskola-orduetatik gaiari astean ordubete eskaintzen diote. Denbora hori erabiltzen dute ikasleek egin beharreko lana zehazteko eta koordinatzeko, baita ikasleak formatzeko ere. Dena dela, proiektuaren muina da ikasleek eskolaz kanpo, beraien denbora librean, egiten dute boluntario lana. Asteburuetan nahiz astean zeharreko arratsaldeetan, lau esparru edo zerbitzutan banatuta aritzen dira ikasleak boluntario gisa lanean. Boluntario zerbitzuak egunero eskaintzen dituzte, baina, txandatzen joaten direnez, ikasle

bakoitzak ez du egunero aritzeko ardura, dagokion asteko egunean baizik.

Boluntario gisa eskaintzen duten zerbitzuetako bat etorkinei zuzendua dago. Durangoko jesuitek etorkinentzako harrera-etxea dute martxan, eta horiekin elkarlanean aritzen dira ikastetxeko ikasleak. Urtero aldatzen da harrera-etxean egin beharreko lana, etorkinen beharren arabera. Ikasturte hasieran egoitzako arduradunekin elkartzen da Agirre, urte horretan egin beharrekoa zehazteko. Dena dela, gehienetan etorkin etorri berriei hizkuntza irakasteko zeregina izaten dute ikasleak, eta mintzamina lantzen dute bereziki. Eskola orduetan Aitziber Agirrerekin egiten dute koordinazio-saioan prestatzen dituzte etorkinei hizkuntza irakasteko erabi-

liko dituzten ariketak. Hizkuntza ondo dakitenekin, berriz, bestelako ekintzak egiten dituzte, informatika-eskolak, esaterako.

Arlo-soziala lantzen ere saiatzen dira. Hala, duela bi ikasurte, ikasleek jesuiten etxeko etorkinekin partekatzen zuten aisialdia, koadrilan elkarrekin aterata. Aurten ere bide hori landu nahi dute Durangora iritsi berria den etorkin batekin. 20 urte dauzka, hain zuzen boluntario lanetan dabilzan ikasleek baino pare bat gehiago besterik ez. “Koadrilan aterra dadila, agian hori hobea da berarentzat hizkuntza-eskolak jasotzea baino”, Agirreren ustez. Izan ere, etorkinei herrian integratzen laguntzea da helburua.

Ikasleek boluntario gisa lan egiten duten bigarren esparrua zahartzarora da. Horrela, arratsaldetan eskolako boluntario multzo bat Durangoko zaharren egoitzara joaten da, eta ekintzak eta jolasak antolatzen dituzte. Egonkorragoa da esparru honetan egindako lana, ez hain aldakorra, urtetik urtera antzeko mantentzen baita. “Orain dela urte batzuk aisialdi proiektu bat jarri genuen martxan. Horren arabera, arratsalde guztietan izaten dira jarduerak egoitzan: eskulana egiten dituzte, mahai-jolasetan aritzen dira, bingoan edo karta-jokoan, esaterako, eta aerobic-ere egiten dute, bakoitzak ahal dueneraino. Urte batean aromaterapia saioak ere antolatu zituzten ikasleek, batik bat oso txarto zeuden adinekoentzat. ‘Horiekin zer egin? Bada, zentzumenak landu’ pentsatu zuten, eta asmatu zuten halako tailer bat”.

Batik bat bakarrik daudenekin, edo bisita gutxi jasotzen dutenekin aritzen dira lanean boluntarioak. Parte hartuko dutenen zerrenda finko bat daukate ikasleek. “Planifikatu egiten dugu, eta arratsaldero behintzat zerbait daukate egiteko. Egoitzakoak oso eskertuta daude: egunero bizpahiru ikasle doaz eta jarduera bat jartzen dute martxan, eta egoitzakoei oso ondo datorkie. Izan ere, normalean aitona-amonek bazkalondoren albistegia ikusi eta lo kuluxka botatzen dute, eta gero bizpahiru ordu izaten dituzte zeregin handirik gabe. Bisita dutenak oso ondo, baina gainerakoak... Tarte horretan oso ondo etortzen zaie zerbait berezia edukitzea”.

Bestalde, ezinduekin ere egiten dute lan ikasleek, hori litzateke Bolondres proiektuak lantzen duen hirugarren esparrua. Bizkaiko Adimen Ezintasuna duten Pertsonen Aldeko Elkartea da Gorabide eta aisialdi taldea dauka Durangon. Bada, horiekin ere elkarlanean aritzen dira San Jose Jesuitak ikastetxeko Bolondres proiektuko ikasleak, bai astean zehar bai asteburuetan. Astegunetan, arratsaldetan hainbat jarduera antolatzen du Gorabidek, eta horietan hartzen dute parte, 18:00etatik 20:00etara; asteburuetan, berriz, koadrilan

ateratzen dira bai boluntarioak bai ezinduak, 16:00etatik 20:00etara: Durangon buelta bat ematen dute, edo zinemara joaten dira, edo txangoak egiten dituzte Bilbora...

## Ikastetxean bertan lanean

Azken esparrua, ikastetxearen baitan dago; San Jose Jesuitetako kide dira bai laguntzaileak bai lagundutakoak. Izan ere, boluntario lanetan ari diren hainbat ikasleek, ikastetxean bertako beste ikasle batzuei laguntzen diete ikasketa-prozesuan. “Krisiaren ondorioz, gure familietako hainbat kide langabezian gelditu dira eta ekonomikoki ez dabilza oso ondo, eta, beraz, seme-alabek eskolan arazo-akademikoak badituzte, zailtasunak dituzte eskolaz kanpoko errefortzuak emateko. Horrenbestez, diskrezio handiz laguntza akademikoa behar duten eta familian arazo ekonomikoak dituzten ikasleek zerrenda bat prestatu genuen, eta horiei eskolaz kanpoko orduetan klaseak ematen dizkiete Batxilergoko ikasleek”, dio Aitziber Agirrek.

Batik bat Lehen Hezkuntzako ikasleak dira laguntza jasotzen dutenak, baina badira DBHko ikasleak ere errefortzu-programa deitzen duten honetan. Izan ere, etorkin asko behin ikasturtea martxan dela iristen dira, jada irakasle orduetegiak antolatuta daudenean eta errefortzurako orduak esleitzeko aukera gutxi dagoenean. Horrelakoetan, Bolondres proiektuko ikasleak aritzen dira etorri berriei laguntzen, batik bat hizkuntzarekin.

Agirreren esanetan, hau litzateke zerbitzurik “zailena”. Izan ere, “alde batetik diskrezioa oso garrantzitsua da proiektu honetan. Baina, horretaz gain, 17 urteko ikasleei eskatu behar diegu koordinatzeko ikasle horien tutoreekin; autoritatea mantentzeko haurrekin, baina era berean enpatia lantzeko horiekin... Zerbitzu honek jarraipen itzela eskatzen du”.

## Ardura eta konpromisoa, ezinbesteko osagai

Dena dela, Agirreren ustez zerbitzu bakoitzak dauka bere konplexutasuna. Izan ere, adibidez adinekoekin lanean ari direnen kasuan, arlo emozionalak garrantzi handia hartzen du: “Gertatu izan zaigu zaharretako bat hiltzea, eta larri etortzen dira, nahiko ukituta. Beraz, esparru bakoitzak dauka bere jarraipen mota”. Eta, jarraipen lan hori, eskola orduetan Bolondres proiektuarentzat gordetako ordubeteen egiten dute. Zerbitzu eta boluntario bakoitzari egin beharreko jarraipenaz gain, eskola ordua erabiltzen dute, era berean, antolaketa lanetarako. Dena dela, orain egin dituzte

GAIA:

## BOLONDRES PROIEKTUA

Ikasleak, beharra dutenen bidelagun

“egokitzapen batzuk”, eta autonomoagoak dira ikasleak. Esaterako, zerbitzu bakoitzerako arduraduna izendatu dute eta *whatsapp* aplikazioaren bidez koordinatzen dira; horrela, norbaitek ezin badu dagokion egunean bere zerbitzua ematera joan, gaixorik dagoelako edo bestelako arazo bat sortu zaiolako, ikaslearen beraren ardura da ordezeko bat topatzea, zerbitzua eman egingo dela bermatzeko; “arduratsuak izan behar gara horretan”. Ildo horretatik, Agirreraren esanetan “proiektuak asko laguntzen die pertsona bezala hezten. Konturatzen dira hartu dutela ardura bat, eta ezin dutela utzi azterketa bat dutelako, edo gogorik ez dutelako”.

Alde horretatik, konpromisoa eskatzen diete ikasleei, gogorra izan arren, behin bidea hasita ez baita komeni laguntzen ari diren lagunak bidean uztea. “Hasieratik garbi uzten diegu proiektu honetan parte hartzeak zer suposatzen duen. Nik urteren batean galdetu izan diot ikasleren bati ea ziur al dagoen parte hartu nahi duela: kirola egiten du, herriko bandan dabil... badauka denbora? Izan ere, hau ez da hasi eta gero utz dezakezun gauza bat”, argi uzten du Agirrek.

### Esparru berriak aztertzeke prest

Horiek dira gaur egun indarrean dauden zerbitzuak, baina

gehiago ere izan dituzte 7 urteko ibilbidean. Esaterako, Durangoko Udalak kudeaturiko *Zainduz* proiektuarekin elkarlanean ere aritu izan dira ikasleak. Udalak formazioa eskaintzen zien Alzheimere gaitzak jotako herritarren zaintzaileei, eta, horiek formazioetan zeuden denbora tartean, Bolondres proiektuko ikasleek zaintzen zituzten gaixorik zeuden lagunak. “Oso proiektu polita izan zen, baina krisi ekonomikoa etorri zen eta bertan behera gelditu zen. Politia izango litzateke egunen batean berreskuratzea”, Agirreraren esanetan.

Izan ere, ikastetxea prest dago boluntario lanetan aritzeko esparru berriak aztertzeke. Ildo horretatik, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako langile Maria Villar-ekin harremanetan dago Agirre, eta urtero aztertzen dute ea ikasleek laguntzeko moduko proiekturik ba ote dagoen martxan herrian. “Urtero diseinatu behar izaten dugu boluntario lana, eta urtero galdetzen diot Udalari: gure boluntarioak ikusten al dituzue nonbaiten ekarpena egiten? Urteroko lana da proiektu hau diseinatzea”, dio Agirrek.

Dena dela, momentuz aipaturiko lau esparruak izan dira denboran jarraipen luzeena izan dutenak Boluntario proiektuaren baitan, eta modurik egokienean funtzionatu dutenak, arduradunen ustez.

## Zertan eragiten die ikasleei boluntario gisa egindako lanak?

Ikasturte amaieran, Bolondres programan parte hartu duten ikasleek memoria bat aurkeztu behar izaten dute, beraien bizipena zein izan den azalduz: zer eman dien boluntario gisa egindakoa lanak, zertan aldatu den, adibidez, inmigrazioaren inguruan daukaten ikuspegia... Agirreraren ustez, “ez da berdina programa honetan parte hartu duen edo ez duen ikasle bat, edo ez luke izan behar, behintzat”. Izan ere, esperientzia bat izan daiteke ikaslearentzat, besterik gabe, bere baitan zerbait utziko duena, baina harago ere irits daiteke, eta pertsona horren bizitzaren norabidean eragina izan dezake.

Esaterako, zenbait ikasleek beraien unibertsitate ikasketetako aukerak aldatu dituzte ikasturtean zehar, hain zuzen boluntario-lanak beraiengan izan duen eragina dela eta. “Agian inoiz ez zuten pentsatu arlo sozialarekin zerikusia zuen ikasketaren bat aukeratzeko, eta bat-batean erabaki hori hartzen dute eta diote ‘nik horretan egin nahi dut lan’, ezagutu duelako Gorabideko eta zaharren-egoitzako kideen

lana”.

Beste hainbatek, boluntario gisa lanean jarraitzea erabakitzen dute zaharren-egoitzan edo Gorabiden. Agirrek aitortzen duenez, hori da proiektu honen alderdirik politena: “Zuzendaritzakoei beti esaten diet proiektuaren balorazioa egiteko orduan: badago inon jasotzen ez den datu bat. Zenbat ikasle jarraitzen duten boluntario gisa lanean eskola amaitu ondoren ere? Aldatu al ditu barrutik proiektu honek? Beraien eguneroko erabakietan eragina izan du? Bada, kasu horretan, merezi izan du proiektuan jarri dugun indarrak”.

Alde horretatik, pertsonaren garapenerako proiektua garrantzitsua dela deritzo: “DBH arte ikasleak konpetentzien arabera baloratzen ditugu, baina iristen dira Batxilergora eta nota, zenbakia da axola duen bakarra. Uste dugu Bolondres proiektuaren bidez autonomia, garapen pertsonala, ardura... bezalako konpetentziak garatzen direla”.

# Formaziorik onena, balioak

**B**oluntario lana gogorra izan daiteke sarri ikasleentzat, Aitziber Agirrek aitortu bezala. Agian ordu arte ezagutu gabeko bizitzako zailtasunekin aurrez aurre egiten dute topo 17-18 urteko gazteek: probezia, deserria, ezintasuna, gaixotasuna, heriotza... Bada, horiei aurre egiten laguntzeko, ikasturte hasieran formazioa jasotzen dute Bolondres proiektuko ikasleek.

Hasiera batean, egin behar zuten lanaren arabera formazio zehatza ematen zieten: zaharren egoitzan aritutako zirenek, hango psikologoaren laguntza jasotzen zuten, geriatría kontuen inguruan; Gorabiden aritutako zirenek, berriz, ezinduekin lan egiteko trebatzen zituzten... Baina ez zen ikasleen gustukoa, “ez zuela balio zioten”, eta, gainera, ikastetxeak ere “balio unibertsalagoen” falta sumatzen zuten formazio eredu horretan: “Konturatu ginen azkenean ez dela hain beharrezkoa esparru jakin batean formatzea, baizik eta balio orokorragoak landu behar direla. Azkenean proiektuaren helburua da pertsona balio jakin batzuetan hezea: justizia, elkartasuna, enpatia, poztasuna... Horiek dira mundua aldatuko duten balioak”, dio Aitziber Agirrek, Bolondres proiektuaren arduradunak.

Balio horiek guztiak aintzat hartuta boluntarioek egin beharreko lana hitz bakarrarekin laburtzen du Agirrek: bidelaguntza. “Batuetan kezkatuta egoten dira ikasleak, arratsalde pasa joan ezinduek edo adinekoena, eta ‘berarekin nago eta ez da enteratzen’ diote. Eta erantzuten diet, ‘zuek zarete enteratzen ez zaretenak’. Izan ere, kontua ez da berak ekintza honetan edo hartan parte hartzea, baizik eta bere ondoan egon eta bere bidea egiten laguntzea, behar duen horretan. Adibidez, zahartzaroaren bide horretan, beraientzat erreferente bat izatea”.

## Alboan-en laguntza

Balioetan formatzeko eta bidelaguntza lan horretarako prestatzeko, beraz, formazio orokorra jasotzen dute gazteek. Hasteko eta behin, herrialde aberatsen eta pobretutako herrialdeen arteko desorekaren, eta desoreka horien zergatien inguruko saio informatiboa egiten dute, eskolan

bertan. Ondoren, herritarren partaidetzaren inguruko beste saio bat izaten dute; gizartean parte-hartzearen garrantzia eta gure ingurunea aldatzeko gaitasunaren inguruan hitz egiten dute bertan. Horretaz gain, gazteen formazioan garrantzia handia dauka Alboan-ek, jesuiten Gobernu Kanpoko Erakundeak.

Hala, GKE hori lantzen ari den proiektu bat ezagutarazten da ikastetxean; aurtun, teknologiak eta gatazkak izan dituzte hizpide, eta orain dela bi urte *Emakume Ausartak* proiektua aurkeztu zuten Alboan-eko lagunek ikastetxean; hain zuzen, orduan Bolondres proiektuan parte hartzen ari ziren bi ikaslek (gaur egun unibertsitatean daude) oraindik ere Alboan-eko proiektu horrekin kolaboratzen jarraitzen dute. Proiektua aurkezteaz gain, Alboan-en bidez pertsonaren bat etortzen da eskolara hitzaldia eman eta bere bizipena ikasleekin partekatzerara. Aurtun, esaterako Chad-etik etorriko emakume baten bizipena ezagutzeko aukera izan dute. Duela bi urte Jacinta etorri zen Indiatik, eta eskolan “lan itzela egin genuen Indiari buruz: hango egoera ezagutu, bereziki emakumeena, erlijioa, gizartean daude desberdintasunak...”, dio Agirrek.

Hori guztia, pixkanaka, beren baitatik begirada altxatu eta mundura begiratzen hasteko.





“Herri nortasuna herriaren baitan transmititzen diren balioek osatzen dute. Egiteko hori mitologiarena zen lehen, eta gaur egun eskolarena da”



# ELKARRIZKETA:

# JUAN INAZIO

# HARTSUAGA

---

## ANTROPOLOGOA ETA PENTSALARIA

Mitologian aditua da Juan Inazio Hartsuaga. Hamaika liburu eta artikulu idatziak ditu gaiaren inguruan, eta doktoretza-tesia ere egin du mitologiaren ahozko transmisioaren gainean. Kritiko da euskal mitologiaren dagoen ezagutza eskasarekin, iruditzen baitzaio herri nortasuna eraikitzeko

ezinbesteko elementu dela, “ez herri nortasun fosil baten esklabu izateko, baizik eta kontzienteki, gaurko eta etorkizunerako zein herri eredu nahi dugun erabakitzeko”. Izan ere, bere ustez, mitologian hainbat balio daude txertatuta, oharkabean transmititzen direnak.

**HAUSNARKETA eta EZTABAIDA** irekia antolatu dugu elkarrizketa honekin batera bidali dugun *Gure nortasuna* liburuxkan lantzen diren gaien inguruan.

**EGUNA:** martxoak 7  
**ORDUA:** 17:30  
**TOKIA:** Donostia  
**PREZIOA:** doan

\* Parte hartzeko izena eman behar da [hikhasi@hikhasi.eus](mailto:hikhasi@hikhasi.eus) helbidera idatzita edota 943 371408 telefonora deituta.

**Ikerketa asko egin dituzu mitologiaren inguruan. Azertu duzun horretatik guztitik zer da baliagarria hezkuntzarako?**

Dena izan daiteke baliagarria. Aurren aurreneko urratsa da jendeari esatea mitologia ez dela askok uste duena. Mitologia ez da ipuin bilduma bat, ez da gauza literario bat, beste funtzio bat du. Baina hori ulertaraztea oso zaila da.

Horren zergatia ulertzeko giza burmuinak nola funtzionatzen duen izan behar dugu kontuan. Euliak argitara joaten diren bezala, gure garuna irudiek erakartzen dute erabat. Hau da, mitologian agertzen diren irudiek erakartzen gaituzte, baina mitologiaren atzean dagoen esanahiak ez dauka horrelako erakarmenik.

**Beraz, mitologia ez dugula ezagutzen esan daiteke?**

XXI. mendean euskal mitologiak duen egoera, euskal filologiak Larramendiren garaian zuen egoerarekin konpara liteke. Orduan euskara mitifikatuta zegoen bezala, orain mitologia mitifikatuta dugu. Garai hartan azterketa zientifikorik ezean, euskarari buruz zernahi esatea zilegi zen bezala, orain ere halatsu: zernahi entzuten da mitologiaren inguruan. Orduan euskararen baitako maileguak eta kanpo eraginak ezezagun ziren bezala, orain ere horrela diraute mitologiaren baitakoek. Euskaldunek (euskaldun jantziek tartean) ipuinen azalaz harago ez dakite ezer haren garai bateko funtzio eta esanahiaz. Harrigarria dirudi baina honelakoxea da egoera. Euskal mitologian, Tubalismoaren garaian bizi gara oraindik eta ez dirudi axola duenik.

**Nola ulertu behar da, hortaz, mitologiaren esanahia eta funtzioa?**

Mitologia, beste euskarririk ez zegoen garaiko hezkuntza-sistema da. Alde horretatik, mitologiak bi funtzio betetzen ditu: batetik, errealitatea esplikatzeko, eta bestetik, errealitate hori zilegitzea, portaeren, erakundeen, ogibideen, jarrerren... bidez. Hortaz, eskolarik eta komunikabiderik ez dagoen testuinguru batean, funtzio horiek mitologiak betetzen ditu.

Munduaren ikuskera osoa ematen



digu mitologiak. Adibidez, “Eguzkia badoa bere amagana” esaldia esplikatzeko ari zaigu eguzkia lurraren alaba dela eta gauero lurraren barrura sartzen dela. Umetatik gauero kantu hori entzunez gero, ez duzu pentsatu behar eguzkia zer den, non dagoen, zergatik hau eta bestea... koskortzen zarenerako badakizu jakin beharreko guztia. Zentzu horretan, mitologiak alde aurreko erantzunak ematen ditu. Galderen itogarri dela esan daiteke, hau da, zientziaren kontrakoa. Horregatik, mitoa eta zientzia elkarren aurkako bi gauza dira. Mitoak behin eta berriz entzunez, badakizu munduak nola funtzionatzen duen, gizartea nolakoa den, zer dagoen ondo eta zer gaizki...

**Erlijio sistema batek funtzionatuko lukeen bezala?**

Bai. Erljioa, azken finean, mitologia da. Fedez onartzen den sinesmen multzo bat bezala defini daiteke. Eta definizio hori zabaltzeko, esango nuke, ohartuki edo oharkabe, eredu funtzioa betetzen duten mezu guztiak sar daitezkeela mitoaren barnean.

**Adibidez?**

Kirol marka baten publizitate panela. Kirol heroia bat ageri da bertan, tamaina erraldoian. Marka eta irudi hori etxekotuta edukitzea, kalean hain presente egotea alde guztietan, kirolari horrekin identifikatzea... Horrek guztiak zilegitzen du dendara joan eta 100 euroko zapatila pareta erostea, lasai ederrean, zer astakeri egiten ari garen ohartu gabe.

**Mitologia zientziaren kontrako zerbait dela esan duzu. Ikusita batez ere ilustrazio garaitik eta gero positibismoarekin zer-nolako indarra hartu duen zientziak eta arrazionalismoak, zein toki dauka mitoak gaur egun?**

Izugarria. Esan duzun horren atzean gezur txiki-handi bat badago, ekonomia atzean gezur txiki-handia dagoen bezalaxe. Ekonomia atzean oinarria da kontsumitzailearen arrazionaltasuna. Oinarri teoriko bezala oso ondo dago, baina kontsumitzaile arrazionalik ez dago. Publizitatea prestatzen dutenak gure alderdirik irrazionalena zirikatzen aritzen dira. Bada, zuk egin duzun baieztapen horretan ere berdin gertatzen da. Pertsonok animalia arrazionalak garela esatea harrokeria izugarria da.

Tarteka arrazional izateko gaitasuna dugun animaliak gara, baina gure bizitzan hartzen ditugun erabakien eta izaten ditugun jokabideen % 90a ez da arrazionala, mitikoa baizik. Erabat mitikoak gara. *Homo sapiens sapiens* gure buruari deitzea izugarritzko harrokeria da. *Homo sapiens mythicus* izango litzateke definizio askoz ere zehatzagoa eta egokiagoa.

**Zergatik esaten duzu erabakien % 90 gure alderdi mitikotik hartzen ditugula?**

Errepasa ezazu zure bizitzako egun bat. Eta ea zenbat gauza egiten dituzun irizpide zientifikoak jarraituz eta zenbat gauza egiten dituzun oharkabeko eredu jarraituz. Esate baterako, nola janzen garen, edo zergatik janzen garen. Neguan bai, hotza egiten du, baina udaran zergatik janzen gara? Edota, zergatik janzen ditugu kolore batzuk eta ez beste batzuk? Zergatik erabakitzen dugu gona edo galtzak janzea... Berriri diot, gure bizitzan askoz ere pisu handiagoa du zientzia ez den guztiak, hau da, mitoak; oharkabea edo ohartuki, baina auzitan jarri eta eztabaidatu gabe onartzen ditugun hainbat eta hainbat eredu ari naiz.

**Orduan mundu mitikoaren barruan sartzen duzu soziala nahiz kulturala den guztia. Eta alor emozionala?**

Horrek ez dauka zerikusirik. Alderdi emozionala naturala da, berezkoa. Mitoa, berriz, kulturala da. Noski, mitoak emozioei eragiten die. Kontua da gure jokabidearen % 90a ez dela arrazionala, okerki uste dugun bezala, baizik eta mitikoa. Beraz, oso inportantea da mitoak ezagutzea, gure izaera mitikoa zein den jakitea, eta guri egunero eragiten diguten mito horiek nolakoak diren kontzientzia izatea.

**Mitologiaren barruan ipuinek eta kondairek liluritzen gaituztela diozu, baina ez horrenbeste mito benetan den horrek; hori ez zaigula horren interesgarria egiten.**

Nik konparazio bat jarri ohi dut. Mitoari begiratzea da indusketa batean ateratzen dituzun objektuei begiratzea bezala. Indusketa batetik

ateratzen dituzun objektuak nahiko lokaztuta, herdoilduta, zikinduta... egon ohi dira eta nekeza izaten da aurrean zer duzun jakitea. Mitoarekin berdin gertatzen da: ez dakizula zeren aurrean zauden. Eta zer gertatzen da zerbait zer den ez dakizunean? Ezjakintasunak baduela nolabaiteko lilura eta fantasiari bidea irekitzeko aukera handia ematen duela.

Adibide bat jarriko dut: pentsa zeharo herdoilduta dagoen objektu metaliko bat aurkitzen dugula. Begiratzen dugu eta batek esaten du: "Kontxo, honek banpiro baten forma du". Herdoilari begira gaudelarik dena izan liteke zilegi. Batek hau ikusten du eta besteak bestea. Horrek izugarritzko jokoa eman dezake. Hala, bat-batean norbaitek literatura egiten du herdoildutako metal pusketa horren gainean, mitologiaren gainean sarri egin ohi den moduan, eta esaten du: "Ba omen zuten garai bateko gizakiek banpiroen inguruko kulto bat..." eta bat-batean 100.000 irakurle. Eta gero hartuko du Jaur-laritzako Turismo Sailak eta joango dira Fiturrera, salduko du banpiroen kultua eta etorriko dira ez dakit zenbat turista hori ikustera. Horrek jendea mugitzen du, eta, gainera, aberastasuna sortzen du.

Baina, zer da benetan gertatzen dena? Herdoildutako metal pusketa hori laborategi batera eramaten duzula, garbiketa kimiko-elektrolitiko bat egiten diozula eta ez dela banpiro bat, baizik eta gerriko baten belarria. Baina, askoz hobeto geunden banpiroa zela pentsatuz, ezta? Zientzia apur bat gustatzen bazaizu, ordea, gerriko-belarria azaltzen denean jada hori fabrikatu zuen kulturaren garapen mailari buruz zerbait bada-kizu: zer metal ezagutzen zituzten, zein mineral erabiltzen zituzten, zein teknologia zuten hori lantzeko, estilo aldetik zein beste kulturarekin lotuta egon zitezkeen edo noren eraginak jaso zitzaizketen...

Baina banpiroarena zeinen polita zen, ezta? Hortaz, hein batean hori da mitologiarekin gertatzen dena. Mitologiari nahi dugun aldetatik hel diezaiokegu. Eta gaur egun argi dago alde mitikotik heltzen diogula, eta ez zientifikotik.

“Eredu funtzioa betetzen duten mezu guztiak sar daitezke mitoaren barnean”

“Pertsonok animalia arrazionalak garela esatea harrokeria izugarria da. Tarteka arrazional izateko gaitasuna dugun animaliak gara, baina gure bizitzan hartzen ditugun erabakien eta izaten ditugun jokabideen % 90a ez da arrazionala, mitikoa baizik”

“Gure burua ulertzeko eta gehiegizko konplexutasun honetan argi pixka bat egiteko balio digu mitologiak”



**Beraz, mitologiaren zein parte izan liteke interesgarria gaurko egunean transmititzeko?**

Mitologiaren eta historiaren arteko lotura egingo nuke hori azaltzeko. Historia litzateke mineral bat bezalakoa eta mitologia elementu kimiko baten antzekoa. Mineral baten propietateak nekez deskribatu daitezke, anitz elementu kimiko diferenteren nahasketa delako. Mineral batek ez du propietaterik, elementu kimiko batek bai. Deskribatu, ezaugarriak zerrendatu, etab. egiteko elementu kimiko bat behar duzu, kimikoki purua den zerbait. Eta horixe da mitologiak eskaintzen duena.

Gaur egungo gure gizartea oso konplexua da, era guztietariko eraginak ditu. Iturri askotatik edaten dugu, eta

batzuetan noraezean gabiltza, inguruko errealitatearen nondik norakoak ulertu ezinik. Heldulekuak falta zaizkigu. Mitologiak, nolabait, mineral horretan dauden elementu kimiko guztiak azaltzen ditu, banan-banan, bakoitza bere purutasunean. Iritsi garen tokira nola iritsi garen jakiteko balio digu. Gizarte poliedriko batean bizi gara eta eragin askoren ondorioz bildutako tendentziekin koktel bat osatu dugu. Testuinguru horretan mitologiak zera esaten digu: osagaiak hauek dira, jatorrian horrelako kultura mota bat dugu, eta balio hauek ditugu. Horieta osagai batzuk ondo ezkontzen dira elkarrekin, beste batzuk kontraesanean daude, eta ikus dezakegu banan-banan gu gaur garen horren osagaiak zeintzuk diren. Azken batean, gure burua ulertzeko

eta gehiegizko konplexutasun honetan argi pixka bat egiteko balio digu mitologiak.

**Baina hori soziologiak egin dezake, ezta?**

Ez dakit argitasun mota bera ematen duten biek. Soziologia historiaren alderdi berean legoke. Portaera mailako zerbait da, mitologia, berriz, eredu mailakoa. Historian eta soziologian edozer ikertzea oso zaila da. Izan ere, portaera mailako zerbait ikertzen duzunean, nahi adina adibide bila ditzakezu alde batera eramaten zaituztenak eta nahi adina kontrako aldera eramaten zaituztenak. Euskaldunen nortasunaren inguruko testu historiko ugari idatzi da: batek esaten dizu euskaldunak berdintasun-zale zirela, baina atzetik beste bat joaten da eta juxtu kontrakoa esaten dizu. Eta etengabeko sokatira batean sartzen zara, ezin hortik atera.

Mitologia eredu mailakoa denez, erreferente bat eskaintzen digu horrek. Gero eredu hori beteko da edo ez, baina erreferentzia emana dago kontakizunen bidez. Nolakoak gara euskaldunak? Ezin da esan. Nolakoak izan nahi dugu euskaldunok? Hori bai, hori gure mitologian dago. Zein eredu jartzen diogu gure buruari? Zer da guretzako ona? Zein dira gure ereduak? Horretarako balio digu mitologiak.

**Esan daiteke eredu mota batekoa bada, gizarte horrek eredu horren antza handiagoa izango duela?**

Bai. Portaerak aldatu egiten dira, baina mitologia gordeta geratzen da, fosilak bezalaxe. Eta orduan esan dezakezu: "Mitologian ikusten da horrelako eta halako ereduak genituela eta eredu haietatik hainbat ezaugarri gorde ditugula gaurko eredueta". Era berean, beste hainbat ezaugarri galdu egin ditugula jabetzen zara, beste mitologia batzutatik ere edan dugulako.

Hori da, nolabait, mitologiaren balioa eta interesa: gure gaur egungo eredu azterketa egitea eta eredu fosilekin konparatuta ikustea nondik datozen erreferente horiek, nola nahasten diren, zein geratu diren bidean, zein dauden oraindik inda-

rean... Hori guztia ez herri-nortasun fosil baten esklabu izateko, baizik eta ohartuki hori dena ikusita, esateko: orain goazen definitzera zer eredu nahi dugun, gaurko eta etorkizuneko. Ez historia edo soziologiaren konplexutasun izugarria ikertuz —hor erraza baita zeharo galtzea—, baizik eta ikusiz eredu horiek zer duten onetik eta zer txarretik gaurko ikuspuntutik begiratuta.

Euskal mitologian, halere, badaude kimikoki puruak ez diren gauzak ere. Urte askotako historia luze baten ondorio baita gure mitologia. Bertan txertatu dira apur bat puruak ez diren elementu horiek, baina gutxi dira eta erraza da antzematea.

#### **Adibidez? Puruak ez diren elementu horiek zein izan daitezke?**

Kixmi, adibidez. Jentilen akaberaren mitoan Kixmi sartu zen orain dela 400 urte eta parasitatu egin ditu erabat mito zaharra eta haren esanahia. Edo San Martin txikiren istorioak. Istorio horiek mitologia germanikotik daude hartuta, eta planteatzen dute jentilen mitologiarekin kontraesanean dagoen eredu bat. Kontua da gauza horiek denak ipuin bezala kontatzen direla eta ez garela ohartzen esanahi eta eredu aldaketaz.

#### **Baina gizartean hainbeste kultura desberdinen arteko nahasketa egonik, badauka zentzurik mitologia bakar batean oinarritzeak?**

Ez, ez. Ni bakarrean ez naiz oinarritzen. Hemen edozer gauzatan aurrera egiteko konparazioan oinarritu behar zara. Euskal mitologia ezagutzeko zer egin behar duzu? Bestearen mitologia ere ezagutu eta biak konparatu. Euskal mitologia konparatuan hori egiten da. Eredu indoeuroparrak eta euskal mitologiako ereduak konparatu eta ikusi non dauden talkaguneak. Horrek balio digu gure gaurko izaera nola sortu den ulertzeko.

Eta mitologiaren bidetik iritsi zaitezke hainbat auziri buruz hitz egitera: zeintzuk diren gaur egungo erronkak euskal gizarte bat sortzeko; euskal nortasun tipiko, mitiko, moderno bat osatzeko eztabaidatu eta adostu beharrekoak zeintzuk diren... Adibidez, nola uztartzen ditugu

berdintasuna eta bikaintasuna? Biak dira beharrezko baina neurri batean elkarren aurkako. Edota talde izaera eta izate indibiduala nola ezkontzen dira? Mitologiaren azterketatik iritsi gaitezke gure gizarterako garrantzitsu diren auzi horiek oso modu argian ikustera eta planteatzera.

#### **Bikaintasunaren eta berdintasunaren arteko uztarketa aipatzen duzu. Behin baino gehiagotan entzun dugu gure eskoletan Frantziako Iraultzatik eratorritako *liberté* eta *égalité* balioen talkaren berri.**

Joera bat badago pentsatzeko orain dauzkagun balioak orain dela 100 edo 200 urte sortuak direla. Baina hori oso okerra da. Adibidez, protestantismoaren ondorioz, hainbat balio sustatzen direla esan ohi da, eta horregatik dutela protestanteek duten bezalako izaera. Baina hori ez da horrela, inondik inora ere ez. Herri izaera ez da fabrikatzen 100 urtean erlijioso batek erreforma bat proposatu duelako. Alderantziz izan ohi da. Aurretik izaera bat dagoelako gertatu ohi dira gertatzen diren jazoerak. Protestantismoak arrakasta izan bazuen jendea horrelakoa zelako izan zen, eta oso ondo ezkondu zirelako herri izaera hori eta Luteroren proposamena. Beraz, azken batean Lutero herri haren bozeramaile izan zen, edo herri hark zeukan balio-sistemari forma eta idazkera eman ziona.

Eta pixka bat arakatuz gero, ikusten duzu Frantziako Iraultza baino askoz ere lehenago hainbat eta hainbat gauza bazirela. Hainbat aztarna Paleolitikoraino bilatu daiteke. Konfiantzaren, zintotasunaren, auzolanaren kultura, adibidez.

#### **Zu mitoen ikerketan ibiltzen zara, baina ikerketan ez gabiltzanok nola ezagutu ditzakegu mito horiek? Zein baliabide ditugu?**

Mitologian egin beharko litzatekeen lehen gauza da kontzientzia hartzea, zertaz ari garen jabetzea. Mitologiaren hurbilbide zientifiko horrek irakasleen artean zabaldua egon behar luke. Edozein irakaslek ulertu beharko luke mitologia zer den eta mitologian nola dauden hainbat balio txertatuta, oharkabean transmititzen

“Edozein irakaslek ulertu beharko luke mitologia zer den eta mitologian nola dauden hainbat balio txertatuta, oharkabean transmititzen direnak”

“Gure balio tradizionaletako bat izan da auzoaz arduratzea eta norbere esku dagoena egitea. Hori jarrera antropologiko bat da, baina ez gara duen balio politiko eta kulturalaz jabetzen”

“Taldea izaeratik izaera indibidualera pasatzean askatasunean irabazten duzuna, exijentzia etikoan galdu egiten duzu. Beraz, zein oreka bilatzen dugu hor?”



direnak. Horretaz kontziente izan behar dute hezitzaileek eta hortik aurrera norberak ikusiko du zer garatu eta nola, eta zein ipuin diren egokiagoak eredu-funtzio horiekin ondo ezkontzeko.

Euskal herritarrek euskal mitologia zer den jakitea nahi bada, eta euskal kulturaren sustraien benetako nondik norakoak gizartera daitezzen nahi bada, gogoeta egin behar dugu nola txertatu mitologia-ikasketak hezkuntza-sisteman, Unibertsitatetik hasi eta oinarriko hezkuntzaraino, klase orduetatik hasi eta testugintzaraino. Gure herri nortasunaren eraikuntzan izan dezakeen funtzio erreferentzial eta argiemailea aintzat hartuta, merezi duen ahalegina da zalantzarik gabe. Are gehiago, herri nortasuna arrakastaz eraikitzeko ezinbesteko urratsa dela ere esango nuke.

**Mitoek balioen transmisiorako balio dutela diozu, baina, zure arabera, mitologia indoeuroparra gurean sartuz doan heinean, euskal mitologiako hainbat balio hondatzen ari dira.**

Ekimenaren kontuan, esaterako, oso sartuta daukagu indoeuropar mundu ikuskera. Euskaldunen mundua, tradizio mitologikoetan mundu txiki bat

da, inguru hurbileko mundu bat da eta hor ekimen bat dago eta bikaintasuna lortzen da harremanetan, balioetan, talde horren antolaketa... Indoeuropar mundua mundu mugagabea da. Mundu mugagabeak daukan aurreneko ondorioa da ezin duzula ezer konpondu, ezin duzula ezer hobetu. Dena zure eskumenetik kanpo dago. Gure izaeran txertatuen edo aurreratuen dagoen parasittoa horixe dela esango nuke. Denok gabiltza urrutiko arazoak konpontzen. Auzoaz jada ez gara arduratzen. Gure balio tradizioaletako bat izan da auzoaz arduratzea eta norbere esku dagoena egitea. Hori jarrera antropologiko bat da, baina ez gara duen balio politiko eta kulturalaz jabetzen. Uste dut urrutikoaz protesta egin eta gertukoaz ez arduratzeko balio hori erraietaraino sartu zaigula. Zentzu horretan, beste kultura arrotz baten ikuspuntua ari gara hartzen. Gure izaera goitik beheara aldatzen ari da. Beti gaude kanpora begira —dena da geopolitika—, eta etxekoa konpontzeaz ahaztu gara.

Beste adibide bat jartzearren, aspaldiko esaera da umeak ez duela gurasoen erruengatik ordaindu behar, ezta? Ba, hori esaten da garai batean kontrakoa uste zelako. Hau

da, pentsatzen zen etxeko edozeinen okerrak familiako kideek euren gain hartu behar zituztela. Hori litzateke talde izatearen espresio muturrekoena. Zu ez zara zu, baizik eta zu etxe horretako norbait zara eta zuk egiten duzunak etxe horretako guztiei eragingo die onerako eta txarrerako. Hori oso interesgarria da. Exijentzia etikoaren aldetik izugarritzko inplikazioa eskatzen du horrek. Exijentzia etiko handi horrekin oso zaila da engainurik, portaera txarrik... egotea; aldi berean, ordea, norbanakoaren izatea deusezten da. Baina askatasun indibidualak irabazten joan garen heinean beste muturrera igarotzen hasi gara. Talde izaeratik izaera indibidualera pasatzean askatasunean irabazten duzuna, exijentzi etikoan galdu egiten duzu. Beraz, zein oreka bilatzen dugu hor?

**Diozu ezin dela eraiki gizarte edo herri bat bere nortasuna definitzen jakin gabe. Hezkuntza-jardunean zentratuz, herri nortasun hori nola landu daiteke eskolan?**

Herri nortasuna herriaren baitan transmititzen diren balioek eta jarrerak osatzen dute. Egiteko hori lehen mitologiarena zen, eta gaur

egun eskolarena da. Beno, ez eskolarena bakarrik, familia, komunikabideak, herria... ere hor daude. Baina momentu honetan, herri nortasun bat izan nahi badugu kultura anitzeko marko batean, familiak ez digu balio gehiegi, kulturak anitz direlako. Komunikabideek gureak balira eta fundamentuzkoak, balioak ligukete, baina ez da kasua. Beraz, eskola da geratzen zaigun bakarra. Horrekin batera baita heziketa ez formala ere, eskola izan ez arren, hezkuntza-sistemaren barnean geundekeelako.

**Beraz, hezkuntzaren egiteko gisa balioen transmisioari sekulako garrantzia ematen diozu.**

Bai, nik balioen transmisioa deituko nioke. Jarrera eta balioen transmisioa. Ez dakit jakintzaren barruan dagoen, ez dakit jakintzaren atal bat den, baina zerbait transbertsala izan beharko litzateke. Gainera, nik *zer ikusi hura ikasi*-n sinesten dut. Eta orduan ez dut uste umeentzako *txapa* bihurtu behar denik hau. Gehiago ikusten dut irakasleek ohartuki jakin behar duten zerbait, gero galbahe horren arabera beren edukiak, beren jarrerak, beren programazioak, beren aisialdiko egitasmoak... antolatzeke.

**Eta egiteko horretan zein balio nagusi nabarmenduko zenituzke?**

Arbolarekin paralelismo bat eginez, enborrean euskara legoke. Hortik ekimena, zintzotasuna, eta talde izana aterako lirateke. Era berean, ekimenaren baitan zorrotasuna, askatasuna eta duintasuna landu beharreko balioak iruditzen zaizkit. Zintzotasunetik onberatasuna, zinezkotasuna eta eskuzabaltasuna nabarmenduko nituzte; eta talde izanaren barruan, elkartasuna, berdintasuna eta apaltasuna.

**Herri bezala egin beharreko norabidea marrazteko zein balio transmititu nahi ditugun jakitea inportantea iruditzen zaizu. Garai batean mitologiaren bidez transmititzen zirenetako asko, gero kristautasunaren bidez transmititu izan dira. Uneotan, gizartea heldulekurik gabe dagoela esango zenuke?**

Dudarik gabe. Eta gainera gertatzen

ari da gaitz bat daukagula, eta gaitza pixka bat zabalduko zaigulakoan, hura sendatu beharrean, nahiago dugula besoa moztu. Horixe da erlijioarekin egiten ari garena. Kristautasuna oso gardena izan da. Interes bakarra izan du: aurretik zegoen dena bereganatzea. Hortaz, kristautasunean paganismoaren arrasto asko dugu. Hemen eta alde guztietan. Kristau bezala agertzen diren gauza askok kristautik ez dute ezer ere. Pixka bat aztertzen dituzu eta erabat heretikoak direla ohartzen zara, baina kristau arropa dutenez arbuia egiten ditugu. Eta hori da pena.

Oso gauza kuriosoak daude. Esate baterako, hemengo kristautasunean, herriak duen protagonismoa. Hori erabat heretikoa da. Erromako Elizan herria ez da protagonista, protagonista apaiza da. Herria da masa bat mezetara joaten dena eta apaizak esaten duena egiten duena. Adibide bat aipatzearen: santuak kutxatxo batean etxez etxe ibiltzeko ohitura. Hori benetan auzobizitzaren eta erlijio autogestionatuaren ikur da. Azkenean, elizaren sarkeria non dago? Bada, kutxatxoan dabilena santu bat edo Amabirjin bat dela, eta horren bukaeran biltzen diren diruak elizari joaten zaizkiola, baina horren antolamendua erabat heretikoa da.

Kristautasuna joan da aurretik zegoen guztia bereganatzen. Erlijio katolikoa estu uztartu da paganismoarekin. Baina hori oso modu gardenean egin duenez, hemengo erlijioaren agerkari asko oso material interesgarriak dira ikusteko lehengoko balio-sistema nolakoa zen.

**Nola ikusten duzu Euskal Herria etorkizunean?**

Oso desorientatua ikusten dut. Ez dut herririk ikusten. Oso deseginda gaude herri bezala. Bai hizkuntza aldetik, hizkuntza baita edozein herriren egituratzailea, eta bai nortasunaren aldetik. Benetan desegite prozesuan dagoen herri bat bezala ikusten dut. Baina ez naiz erabat pesimista, Internet daukagulako. Internet ez balego, azken olio-igurtzia emandako hil-hurren moduan ikusiko nuke herri hau. Benetan. Baina orain Internet dugu, gotortzeko tresna paregabea.

**“Euskal kulturaren sustraiak gizartera daitezen nahi bada, gogoeta egin behar dugu mitologia-ikasketak hezkuntza-sisteman nola txertatu”**

**“Nabarmenduko nituzkeen balioen artean, arbolarekin paralelismo bat eginez, enborrean euskara legoke. Hortik, ekimena, zintzotasuna eta talde izana aterako lirateke”**

# ESPERIENTZIAK

ZIENTZIA-HEZKUNTZA

---

## Ikerketa, zientzia irakasteko ardatza

Zientziaren hezkuntzan nabarmendu egiten da Lauro Ikastolaren lana. DBHko eta Batxilergoko ikasgai banatan, zientzia-proiektuak diseinatu eta garatzen dituzte ikasleek, taldetan banatuta elkarlanean. Proiektu horien dibulgazioa da lanaren azken partea, eta entzutetsu egin da Lauroko ikasleen lana zientzia-azoka eta lehiaketetan.

**B**izkaiko Lauro Ikastolako ikasleek eskarmentua dute zientzia-proiektuak talde-lanean diseinatu, garatu eta aurkezten. Eta, gainera, badirudi habilak direla horretan, sarritan nabarmendu baita beraien lana bai Euskal Herriko bai atzerriko zientzia-azoka eta lehiaketetan. Hainbat aldiz irabazi dute Elhuyar Zientziak antolatzen duen Zientzia Azoka, eta, horko garaile izanik, Kataluniako Exposerca lehiaketetan parte hartu eta irabazi izan dute, baita Galizako Galicia txapelketan ere. Gainera, First Lego League zientzia-lehiaketa

entzutetsuan ere hainbatetan izan dira irabazle, mundu mailako txapelketara iristeraino. Hain zuzen gizar-tean zientzia gaiekiko ezagutza eta interesa mugatua den garaiotan, nola lortzen dute ikasleek zientziarekiko halako grina erakustea? Zerk egiten du desberdin zientziaren hezkuntzan Lauro Ikastolak erabilitako metodologia?

Lauro Ikastolako zientzia-irakasle Amaia Perezen ustez, zientziaren aplikazioan, ikerketan dago gakoa. *Ikerketa* izeneko ikasgaia ematen du berak DBHn, eta *Proiektu* ikasgaia Batxilergoan, biak zientzia aplikatzeko eta ikasleak ikerketara gerturatzeko bokazioa dutenak: “Ikasgaien xedea da zientzia ikastea proiektu zientifiko-teknologiko batean aplikatuz dakizkizun kontzeptuak, edo proiektuan aplikatzeko ikasi dituzunak”. Izan ere, ez dira beste ikasgai teoriko batzuen jarraipena; bada, horrela, curriculumean ez dauden edukiak ere ikasten dituzte “proiektua aurrera ateratzeko beharrezkoak badira. Niretzat hori da garrantzitsuena: kontzeptu bat ikasten duzu beharra duzulako; kasu honetan, proiektua aurrera ateratzeko beharra. Modu horretan, ikasketa-prozesua askoz ere eraginkorragoa da”, Perezen esanetan.

Bere aldetik, *Betabot* taldeko kide

Sue Gonzalezek argi du zein den Lauroko zientzia-hezkuntzan duen arrakastaren gakoa: “Nire ustez, irakasleengatik da”. Hain zuzen, lehiaketetan nabarmendu den taldeetako bat da Betabot. Gonzalezek esanaren harira, Perezek argitzen duenez, bi irakasleak zientzia-gaiekin “ikerketarako bokazioa” dute: “Doktoreak gara eta ikerketarako formazioa daukagu, nolabait barnertuta daukagu ikerketan oinarrituriko metodologia dela zientzia irakasteko ardatza. Beharbada zaila izan daiteke curriculumaren baitako ikasgaietan, eduki batzuk ematera behartuta zaudelako. Hala ere, uste dut ikasleek deskubritu behar dutela zientzia, eta deskubritzeko ikertu egin behar dute. Eduki guztiak garatu ez arren, interesa sustatzea lortzen duzu”.

### Dibulgaziotik txapelketetara

Eta, ikerketaren azken urratsa, deskubritu edo aztertutako horren dibulgazioa izan ohi da. Hala, *Ikerketa* eta *Proiektua* ikasgaietako ikasleak behartuta daude moduren batera edo bestera ikertu duten hori zabaltzera, azken notan pisua izango baitu dibulgaziorik horrek. Horretarako hainbat bide erabili dezakete, txosten zientifikoak osatu edo sarean blog dibulgatiboak elikatu, besteak beste.

Edo, bestela, zientzia-proiektuak





Google-ren zientzia txapelketarako prestatu duten proiektuaren prototipoarekin Betabot taldeko kideak eta Amaia Perez irakaslea.

lehiaketetan aurkeztu. Azken hone-  
tan esperientzia handia dute Lauro  
Ikastolan.

DBHko dibertsifikazio gelako ikas-  
leekin aurkeztu zen lehen aldiz Perez  
First Lego League lehiaketara. *Smart  
transport* edo garraio adimentsua zen  
urte hartako gaia, eta Getxorako pro-  
posamen bat sortu zuten: herritarren  
arteant bizikleta eguneroko garraibide  
bilakatzeko zerbitzu bat antolatzea  
proposatu, eta maldan behera joatean  
bateria autokargatzen zuen bizikle-  
ta baten prototipoa diseinatu zuten.  
Proiektu horrekin First Lego Lea-  
gue-eko mundu mailako finalerako  
saikatu ziren, eta AEBetako Atlan-  
tan aurkeztu zuen proiektua ikasle  
taldeak. “Ikasketetan zailtasunak  
zituzten ikasleak ziren, eta bizipen ho-  
nekin beraien autoestimua ikaragarri  
igo zen; nik uste horrek lagundu egin  
ziela ikasturtea aurrera ateratzen”, dio  
Perezek.

Dibulgazio lan horren beste espe-  
rientzia arrakastatsua Betabot taldea-  
rena izan da; aurrez aipaturiko Sue  
Gonzalezek, Asier Rementeriak, Jon  
Andoni Bretonok eta Ander Agirianok  
osatzen dute talde hori. DBHko 2.  
mailan hasi ziren horiek txapelkete-  
tan parte hartzen eta lehen esperien-  
tzia Elhuyar Zientziak antolatutako

Zientzia Azoka (aurrez Teknoskopia)  
izan zen. Amaia Perez irakaslearekin  
ikastolako bertako Zientzia Asterako  
proiektu bat osatu zuten, eta hori  
gehiago garatu eta Zientzia Azokara  
aurkeztea erabaki zuten.

Hurrengo urtean, DBHko 3. mai-  
lan, lehen aldiz First Lego League-ra  
aurkeztu ziren, ordukoan ere Perez  
irakasle zutela garaturiko proiektuare-  
kin: *Naturak sortutako hondamendiak*  
zen urte hartako gaia, eta tximisten  
ondorioz sorturiko suteak detektatze-  
ko proiektua diseinatu zuten ikas-  
leek: kamera eta sensoreak erabilia,  
soinuaren eta argiaren arteko desfasea  
detektatu eta dron bat hurbilduko zen  
ustez tximista eroritako lekura, sutetik  
hasi zen egiaztatze, eta, horrela,  
balitz, abisua bidaltzeko. Bada, i-pad-  
aren kamera eta Legoren sensoreak  
erabilia, eta Legoren robot batekin  
dron bat irudikatuta, detekzio-sistema  
horren prototipo bat garatu zuten  
gazteek. Europako txapelketaraino  
iritsi zen Betabot taldea proiektu  
horrekin.

Aurten, aldiz, hezkuntza-sistemako  
komunikazio arazoentzako konponbi-  
de-teknologikoa garatu dute. Besteak  
beste, autismoa duten ikasleentzako  
proposamen bat landu dute; materiala  
lortzeko aurreko txapelketetan ira-

bazitako sarien dirua erabiltzen dute.  
Galiciencia lehiaketa irabazi dute ho-  
rrekin, eta Exporeserca-n aurkeztuko  
dute proiektua laster. Horrekin batera,  
Google-k antolatzen duen mundu  
mailako txapelketako proiektua egin  
dute: ilargian hainbat jarduera egingo  
lituzkeen robota. 200 talde baino ge-  
hiago aurkeztu ziren, eta horietatik 10  
saikatu dira 2. faserako. Horien artean  
dago Betabot.

Lan horiek eskola orduetatik kanpo  
garatu dituzte, sarri asteburuetan, eta  
beti ere Perezen laguntzarekin. Izan  
ere, ikasleek aitortu dutenez, “katigatu  
egiten zaituzte horrelako proiektuek”.

### Bokazioak esnatzen

Katigatu dira, bai, ikerketa zientifiko-  
teknologikora, etorkizuneko ikasketak  
baldintzatzeraino. Izan ere, guztiek  
argi dute zientziarekin loturiko ikas-  
ketak aukeratuko dituztela; aho batez  
erantzuten dute baiezko borobila jar-  
duera hauek zientziarekiko bokazioa  
piztu al dieten galdetean. Anderrek  
Fisika ikasi nahi du, eta ikerketa-  
ra bideratu bere lana. Jon Andonik  
elektronikarekin loturiko ikasketak  
egin nahi ditu, eta Suek eta Anderrek  
ere argi dute bederen alor zientifiko-  
teknologikoko ikasketak aukeratuko  
dituztela.

# EKARPENAK 1

IKASTOLAK 2050

## “Ikastolen lana da bizimodu orekatu baterako eta elkartasunerako heziko den gizakiaren eraikuntzan inbertitzea”

35 urte aurrera begira jarrita, ‘Ikastolak 2050’ liburua idatzi du losu Txapartegi Txapas irakasle eta pentsalariak, ikastolek hemendik urte gutxira beteko duten zeregina imajinatzeko eta ondorio batzuk ateratzeko xedez. Erein argitaletxearen *Haran* bildumaren barruan atera du liburua, bildumaren zuzendari Antxon Lafonten eskariari erantzunez.



**N**ik ez dakit 2050. urtean zer izango den, baina oraingo kezkatik eta oraingo pentsamendutik idatzi dut; ezin da bestela. Hori bai, begirada 2050. urtean jarrita”, aitortu du Txapartegik. Izan ere, aurrera begirako liburu bat da *Ikastolak 2050*, eta kezka honetan oinarrituta dago idatzita: gaur hemen ditugun haurrak datorren mundurako ondo prestatzea.

Zarauzko Salbatore Mitxelena Ikastolan 30 urtez lanean ibili ostean metatutako esperientziatik eta herri-gintzan egindako jardunetik abiatuta idatzi du Txapartegik liburua. Duela 10 urte erretiroa hartu bazuen ere,


ikastolara joaten jarraitzen du, haurrekin abesteko eta haiei pianoa jotzen irakasteko; eta beste hainbat herri-ekimenetan ere parte hartzen segitzen du. Hik Hasi egitasmo pedagogikoko kide ere bada.

Ikastolek orain arte egindako ibilbidearen nondik norakoan berri emateaz gain, gaur egungo egoera orokorra zein den azaltzen du Txapartegik liburuan, eta, aurrera begira jarrita, Euskal Herri eta mundu gizatiarrago eta justuago bat eraikitzeko, orain ikastoletan dabilzan haurrek izango dituzten erronkak zein diren aurreikusten saiatzen da. Horretarako, beharrezkoa izango den prestaketak

nolakoa izan beharko lukeen zehaztu du. Hausnarketa sakon eta zabala egin du Txapartegik, gogoetarako aukera ematen duten hamaika hari-muturri tiraka. Utopia gisa edo desiragarri den zerbait bezala dago planteatuta haren tesia. Bereziki, irakasle eta guraso gazteentzat idatzi du liburua, urte askoan irakaskuntzan aritu den baten testigantza izan dezaten.

Hemendik 20-30 urtera, ikastolak Euskal Eskola Nazionalaren zutabe izango direla pentsatzea zentzudun hipotesia dela iruditzen zaio Txapartegiri. Etorkizunera egokitzeko ikastolek erakutsi duten gaitasun harrigarria ere azpimarratu du. Horretarako, ikastolen oinarri izan diren hiru puntu hauek nabarmendu ditu: euskalduntasuna, herritartasuna eta komunitatean burututako kudeaketa. Eta, hiru indar-lerro horiei jarraituz gero, luzarorako ziurtatuta ikusten du ikastolen etorkizuna.

Baina, garaiak nahiz pentsamoldeak aldatuz doazenez, hezkuntza-arloan ere zenbait egokitzapen garrantzitsu egin beharra dagoela ikusten du. Hasteko, hemen eta munduan bizi dugun egoeraren larritasunaz ohartarazten du liburuan. Beste guztiaren gainetik munduan nagusitzen ari den fenomeno bat oso kontuan hartzekoa iruditzen zaio: “Gizakion arteko ezberdintasunen handitze izugarria. Munduko biztanleen % 0,7k ondasun guztien % 44 omen dauka”. Horrexegatik, ikasgaia gaztetatik barneratzea komeni da, Txapartegiren esanetan: “Behekoei la-



losu Txapartegi Txapas, joan den abenduan Zarauzko Garaio liburu-dendan egin zuen liburu-aurkezpenean. Iturria: Garaio.

gundu bai, baina, aldi berean, goikoen aberastasun erraldoiei 'aski da' esaten ikasi behar lukete ikasleek, matematikako edozein teoremaren parean. Ez bakarrik justiziaren izenean. Batez ere, batzuen eta besteen arteko leizezulo horrek ez duelako gizarte orekatu baterako biderik eskaintzen”.

Horrez gain, biharko arazo handienetako bat ezagutzaren pribatizazioa izango da, liburuaren egilearen ustez. Gaurko haurrek horren aurka egin beharko dute borroka, eta jakintzaren demokratizazioaren alde egin beharko dute. Izan ere, Mendebaldeko ekinbide soziala eta politikoa finantza-errentako merkatuen morroi dabil, autoreak gaineratu duenez, eta goitik behera ezartzen zaizkigu bizimodu eta iritzi globalak, mendeetan baliagarri izan diren jakintza ugari amildegira bultzatuz. “Pentsamendu ‘ahula’ren zuztar ezkorrenak gainditu dira Mendebaldean: azaleko bizimodua, dena erlatibo denaren dogma, konpromisoei ihes egitea, ideia kolektiboen gaitzespena... Ardura handiz hartzeko egoerak jaiotzen ari dira; noruk ukatuko du horrelakorik?”.

Gaur egungo hazkunde eutsiezinak ere arduratzen du Txapartegi. Euskaldunon kontsumo-maila mundura orokortuz gero, beharrak asetzeko

hiru planeta beharko genituzkeela dio, eta etengabeko hazkundearen paradigmaren jarraitzen dugula salatzen du: “Hazkundera, bai, esaten da; baina zer hazkunde, ordea? Edo, agian, desazkundera da bultzatu behar dena? Kontzientzia sozialean, oraindik beritasun handia duen pentsamendua da; baina munduko ikertzaile ugari basteen duen irtenbidea. Hasita gaude gure haur eta gazteak arazo horretaz jabeazten?”.

Munduko beste fenomeno bat migrazio-mugimendu gero eta lasterragoena da, Txapartegiren hitzetan. Hala, pentsamendu kultural arras ezberdinek elkarrekin topo egiten dute etengabe. Nola uztartu, baina, nortasun sendo baten onurak eta globalizazioaren ondorioz eta, batez ere, herri txikiei begira suerta daitezkeen arriskuak? Kontzientzia hiritar unibertsal bezain sustraizkoa duten gizaki horiek dira irtenbiderako gako, maisuaren iritziz. “Gizarteko erlazio berri baten ameslari eta borrokalariak, non posible izango den interes orokorra interes partikular bihurtzea, aurretik interes partikularra interes orokor bihurtzea lortu delako”.

**Paradigma aldaketa, auzi politikoa**  
Kontua da, ordea, ate-joka datozen

errealitate horien guztien jabe egiten ote ditugun ikastolako haurrak. Politikaren azpian dagoen pentsamendu gizatiarraren berri txikitatik eman behar zaio umeari, Txapartegiren aburuz, eta, inolako lotsarik gabe, haurrari esan egin behar zaio, berak ulertzeko moduan, zer arazo dauden munduan; hala, txikitatik hasiko baita pentsatzen errealitate horiek zer konponbide izan dezaketen. Maisuak gehiago dio: beharbada, “haurrak diren bitartean zoriotsuak izan daitezkeen pentsamolde lasaigarriarekin jarraitzen dugu; edo bakoitzak bere bizimodua ateratzen lagunduko dion prestaketa izatea aski dela pentsatzen dugu. Noski, haur bakoitzari etorkizun duina ziurtatzea da hezkuntzaren helburu nagusietako bat. Baina badakigu kontua ez dela soilik subjektua ongi prestatzea; baldintza sozial egokiak sortzea ere nahitaezkoa da, bizimodu duin bat ziurtatu nahi badiogu datorrenari”.

Testuinguru horretan, hainbat galdera planteatzen ditu Txapartegi: zer dugu euskaldunok munduari eskaintzeko? Zer mailatakoak izango dira munduak planteatzen dituen erronka nagusien aurrean euskaldunok eskainiko ditugun soluzioak? Non kokatzen gara euskaldunok nazioen ar-

tean? Pentsamendu kontserbadorearen eta berritzailearen artean, zer puntutan ikusten dugu geure burua? Zeintzuk dira mundu hobeko baten bidean euskaldunok eskaintzen ditugun elementu kulturalak? Nola izan gaitzke ezberdin berdinen artean?

“Iritsi da garaia kulturalki suspertzeko bidean jarri den Euskal Herriak begirada luza dezan eta munduaren konplexutasunaren kontzientzia har dezan”. Hori da, Txapartegiren ustez, ikastolei planteatzen zaien erronka nagusia: pentsamendu partikularra eta unibertsala lotzen ikastea txiki-txikitik; ikasleek beren burua egoera orokorragoetarako antolatzen ikastea; gure ahalegin unibertsalaren eremuan pentsatzea... “Munduarekiko begiradak arrisku handiko eta esperantza gutxi errealitatea itzultzen digu. Baina egoera horretan biziko dira ikastolan pozik ikusten ditugun haurrak. Etorkizun horretarako belaunaldiak prestatzea dagokio ikastolari. Hori da ikastolaren ardura, euskal gizarte guztiaren ardura”.

Paradigma-aldaketaz eta gizaki berriuz mintzo da Txapartegi. Denentzat ona izango den mundu bat nola eraiki daitekeen pentsatu behar dela dio, eta, horretarako, hezkuntzatik hasita balio positiboak indartu behar direla. “Adibidez, umea senti dadila gustura besteari laguntzen dionean, eta ez bestea baino gehiago denean”.

Norabide horretan, jendarte gizatiarrago bat irudikatu nahi du Txapartegik. Horretarako, baina, heziketa-erloan kontuan izan beharreko zenbait aldaketa aipatzen ditu:

- “Ederki bizi gaituk” sentsaziotik “bizimodu ona daramagu” konbentzimendura igarotzea.
- “Gizakiok gara munduko gailurra eta zilborra” antropozentristotik “ama-lurraren babespekoak gara bizidun guztiok” pentsamendu biozentrikora igarotzea.
- Jarrera arduratsuen aldeko apustua izatea gure pedagogiaren zutabe sendoenetako bat.
- Globalizazioak onurak ekarri dituela onartu arren, tokian tokikoaren alde egitea, eta besteen garapena ez tratatzea.
- Barne Produktu Gordinaren

zenbakiak produkzioaren zenbakietan neurtzeaz gain, ongizatearen beste zenbait maila ere neurtzea: zorionaren, lasaitasunaren edota ziurtasunaren mailak; ekologiaren zaintza-mailak; solidaritate-mailak, edo ezberdintasunak gutxitzeko ahaleginak...

- “Gehiago ez da beti hobe” pentsamendua zabaltzea.
- Orokortasunaren ikuspegia indartzea; hau da, ekimen bakoitzak duen eragina ez da neurtu behar segidako ondorio mugatueta soilik, begirada luzatzea komeni baita, eta epe ertainera eta luzarora izango dituen ondorioak kontuan izatea.
- Iraunkortasuna bermatuko duen pentsamendu arduratsua sustatzea.
- Giza zibilizazio orekatuago bat amestea eta eredu komunitarioa eta berdinzalea bultzatzea.
- Absolutuen eremutik aldentuz baina erlatibismo makurrean jauzi gabe, haurrak portaera-eredu egoki batean hezteak.
- “Nahikoa dut honekin” esaten eta gehiago kontsumitzeaz ezekoa ematen erakustea haurrari; hau da, gehiago kontsumitzeko irrika baino helburu preziatuagoak merezi ditugula ikusaraztea.
- Ezagutza zientifiko oinarritzko bat beharrezkoa izango dela onartzea. Eta, horrekin batera, humanitateak eta teknika, artea eta zientzia, politika eta matematika edota soziologia eta ingeniariak loturarik gabe ikusten eta irakasten dituen eredu atzean uztea.
- Artearekin lotuta doan sentsibiltatearen eremua garrantzi handiz lantzea.
- Albisteen iturriak kontrastatzea eta komunikabideen inguruko heziketa askotariko iritzien arteko eztabaidan oinarritzea.

### Oreka eta elkartasuna, iparrorratz

Hori guztia lortzeko, ordea, zer baliotan hezi behar da haurra? Eta zer pedagogia mota erabili behar da? Jorge Oteiza eskultore eta pentsalariaren esanak dakartza gogora Txapartegik, ikastolek bultzatu beharreko balioak

azaltzeko orduan. Izan ere, autoreak liburuan jasotzen duenez, Oteizak bizitza osoa eman zuen gizarte-ekintza (herrigintza) oreka orokor baten eta elkartasunaren inguruan antolatzeak duen garrantzia azpimarratzen. Giza portaera antolatzeako estilo horri “estetikoa” deitzen zion, eta kexu agertzen zen haurren heziketan esparru estetiko desagertuta zegoelako. “Balio horietan oinarritutako gizarte bat amesten dugu askok. Ikastolen lana da bizimodu orekatu baterako eta elkartasunerako heziko den gizaki horren eraikuntzan inbertitzea”. Txapartegiren irudiko, horrek baditu dagoeneko hezkuntzan planteatzen hasiak dauden hainbat eskakizun. Horieta bat ikastolek gelen funtzioa aldatzea litzateke, “irakasleak daki eta ikasleak ez daki” horretan jarraitzea atzera begiratzea bailitzateke. Eta ikastoletan sustatzen den “ikasle mutuen” eredu horri amaiera ematea komeni dela dio, gizarte hobekuntza ezin delako eredu mutuetan oinarritu, ikuspegi globala duten ikasle osoetan baizik. Horrekin batera, problema bat planteatzen ikastea interesgarriagoa litzateke problema bat ebazten jakitea baino, Txapartegiren arabera. Haren ustez, erantzunetan baino gehiago (iraganeko eredu mekanizista) galderak planteatzeko gaitasunetan oinarritzen diren ereduak dira interesgarri.


Horrekin batera, ziurgabetasun- eta konplexutasun-egoera orokortuan, garrantzia hartuko du norberaren uste funtsezkoenak konbentzimenduan eta onura orokorrean oinarritzeak, Txapartegiren iritziz; hau da, argudioen egitasunean eta galderak egitean eta erantzutean datzan besteekiko harremanetan oinarrituko den etika pertsonala babesten du. Bestalde, iraganera begiratzea ere komeni dela dio, mitologian bilduta utzi dituzten seinaleak ezagutzeko. “Gure kasuan, etorkizunean lagungarri izango ditugun balioak dira: elkarkidetasuna, egiarekiko zintzotasuna, oinarritzko berdintasuna eta ekitatea, gizarte zibilaren nagusigoa, balio demokratikoak, apaltasun zibikoa, aberastasunarekiko jarrera neurtua eta beste balio batzuekin —justiziarekin, elkartasunarekin— partekatua... Harrotasun pitin batekin esan dezakegu nazioarteko

“Irakasle bat gai da lur sendoa duten jakintza-printzipioak era ulergarri batean irakasteko. Ikaslea ikerketa berrietara bultzatzeko ere bai. Etorkizuneko irakaslea etengabeko azterketa eta kontroletan baino gehiago fidatzen da ikaslearekin duen erlazioan”

edozein mahaitan azaltzeko moduko balioak direla guztiak”. Aldi berean, beldurren eta frustrazioen fenomenoei ere erreparatu behar lieke pedagogiak, Txapartegiren irudiko; hala, kontuan hartu behar litzateke errealitate guztiak dituztela mugak; ez dagoela zorientasun infiniturik; ezer ez dela betiko; berrietan berriena ez dela aurrekoa baino perfektuagoa; lorpenak ahaleginaren ondorio direla; gehien desio dugunaren sukarra, sarri, laster batean itzaltzen dela; gehiegikeriek berezko dutela txarkeria; sariaren eta aitormenaren zain egon gabe komeni dela on egitea; famak eta handiusteak gehienetan amaia azkarra izaten dutela...

### **Ikasleekin ez ezik, gizartearekin inplikaturako irakasleak**

Etorkizunak eskatzen duen irakasle edo hezitzailearen profila irudikatzen du, Imanol Urbietaren hitzak dakartza gogora egileak liburuan: “Eskolak sortu behar ditu haur sortzaileak. Horretarako, aurretik irakasleak berak izan behar du sortzailea, ausarta, eta ez *funtzionarioa*”. Eta Oteitzarenak erabiltzen ditu Urbietarenak orokortzeko: “Baldin eta badakigu herri batek behar duen gizakiak nolakoa izan behar duen, haur baten hezitzaileak nolakoa izan behar duen ere jakingo dugu: gizaki hori bera izan behar du”. Txapartegik gaineratu duenez, inguruko errealitateaz eta munduko egoeraz oinarritzko jabetza bat duen irakaslea da Oteizak eskatzen duena. Izan ere, maisuak adierazten duenez, hezitzaile batek, lehenik, buruan izan



behar du zein gizarte mota eraiki nahi duen, eta orduan jakingo du zer den onena haurrentzat. “Gizarte-eredu bat buruan ez duen pedagogoa gaizki samar ibiliko da. Umearekin konprometitzeaz gain, inguruarekin ere konprometitu behar du irakasleak. Umeak eredu biziak behar ditu, eta eredu biziak gizartearen inplikatzeari esan nahi du”. Norabide horretan, irakasle bati bere zentroaren kudeaketan aktiboki parte har dezan eskatu behar litzaioke, Txapartegik liburuan zehaztu duenez. Era beran, uste du herriko bizitza sozialean presente egoteak ere asko erraztuko liokeela heziketa-lana. “Kontraesana da ikasleei kritikoak eta emankorrak izan daitezela eskatzea eta, bestetik, zentroaren kudeaketan parte hartzeko edo ardurak hartzeko irakasle zenbaiten erakusten duten nagia”.

Irakatsi behar duenari buruzko ezagutza eguneratua da Txapartegik irakasleari eskatzen dion bigarren prestaketa. “Irakasle bat gai da lur sendoa duten jakintza-printzipioak era ulergarri batean irakasteko. Ikaslea ikerketa berrietara bultzatzeko ere bai. Etorkizuneko irakaslea etengabeko azterketa eta kontroletan baino gehiago fidatzen da ikaslearekin duen erlazioan”.

Irakasleak kontuan izan beharko beste puntu bat ere aipatzen du Txapartegik: lanaren gardentasuna, hain zuzen. “Gelako ateak erdi zabalik, beste irakasleekin etengabeko harremanak izanez, metodoak eta estiloak partekatuz, beren lanaren ebaluazioa egitea eskertuz”. Horrekin batera, amaitzeko, ausardia pittin bat ere eskatzen dio irakasleari, bidean “betikoa” egiten gera ez dadin.

# EKARPENAK 2

ABERASTE TXOKOA

---

## Adimen-gaitasun handiko ikasleen esku-hartzea hobetzeko saiakera

Irakaskuntza-alorrean izan dudan lan-esperientzia praktikaldira mugatuta egon bada ere, ikasle askoren gaitasunak eta ahalmenak baztertuta ikusi ditut. Zenbat indar, gogo, zirrara, gogoeta, hausnarketa, berezitasun... ukatzen zaizkien ikasleei malgutasunik gabeko hezkuntza-sisteman! Bide egokia bakarra da, eta zehaztuta dago. Horretara moldatzen ez denak (izan bide malkartsuagoak edo lasaiagoak direlako edota asfaltoz edo galtzada erromanikoz egindakoak direlako) beste ibilbide bat aukeratu beharko du, erremediorik gabe.

**G**radu-amaierako lanak errealitatean isla izatea nahi nenez, nire ekarpena bide horretatik egitea erabaki nuen, Garaizar tutorea alboan hartuta. *Aberaste Txokoa: adimen-gaitasun handiko ikasleen esku-hartzea hobetzeko saiakera* lana osatu nuen horrenbestez, eta, ikaskuntza pertsonalizatetik urrun samar dauden hezkuntza-komunitateetan adimen-

gaitasun handiko (AGH aurrerantzean) ikasleengandik hasita, ikaskuntza pertsonalizatzeko egitura bat aurkeztu nuen.

### Benetako ikaskuntza

Gaur egungo hezkuntza-sistemen erronka garrantzitsuenetariko bat aniztasunari erantzutea bada ere, hutsunea ageri da, dibertsitate horren parte den ikasleriaren zati handi baten esku-hartzeari dagokionez. Adimen-gaitasun handiko ikasleei dagokienez batik bat. AGHko ikasle-entzako hezkuntza-erantzuna landu gabe dago ikastetxe askotan; eta ikasle horiek dituzten premiak ezezagunak dira hezkuntzako profesional askorentzat.

Askotariko ikaskuntza-moduei (ezaugarriak eta erritmoak kontuan hartuta) erantzuteko apusturik egin ez izanak utzi ditu adimen-gaitasun handiko ikasleak, besteak beste, hezkuntzako esku-hartze egokirik gabe. Ikastetxe asko adinen arabera eta ordutegi zurrun bati jarraituz daude antolatuta gaur egun, eta eremu horretan itota sentitzen dira ikasle asko. Hausnarketa-garaiotan, gero eta gehiago dira ikaslea den bezala onartzearen eta hari dagokion ikaskuntzaren alde egiten dutenak. Baina, aldi berean, zaila egiten zaie ikastetxe askori metodologia eta antolaketa erabat aldatzea. Aldaketak atzera botatzen dituzten ikastetxe-entzat, AGHko ikasleen beharretara hurbiltzeko lehen pausoa litzateke, beraz, Aberaste Txokoa. Malgutasunean zurrun dabilen ikastetxe batera hurbiltzeko lehen saioa da;

**Lore Berasaluze**

LHn, Hezkuntza Berezian graduatuberrria

hurbilketa bat, errealitatean oinarritzen den benetako ikaskuntza geletan txertatzen joateko.

Adimen-gaitasun handiko ikasleen esku-hartzeaz aritzean, hiru neurri hartu izan ohi dira hezkuntzan: taldekatzea, azelerazioa edo curriculuma azkartzea, eta curriculuma aberastea. Bi lehenengoei garrantzia kendu gabe (ikasleen kasuak bakarka aztertu behar dira, neurririk edo neurri-multzorik egokiena zein den erabakitzeke), curriculumaren aberaste horizontala du ardatz ondoren datorren proposamenak (edukiak eta gaitasunak sakontzea eta beren arteko lotura konplexuagoak ezartzea da helburua, maila altuagoak irakatsi gabe). Izan ere, estrategiarik garestiena izanda ere, ikaslea bere osotasunean hartzen du (alderdi intelektualean, sozialean eta emozionalean aberastea), eskema sortzailearen eta ekoizlearen barruan; ikaskuntzarako baldintzak sortzen ditu; estrategiarik inklusiboenak da, eta ikasle guztien ikaskuntzan aplikatu daiteke.

Bide horretan, ikasleen interesetatik abiatuta eta planifikazioa eta gidaritza haien esku lagata, publiko erreal batentzat produktuak edo zerbitzuak sortzea du ardatz Joseph Renzulliren SEM ereduak, ikaskuntza induktiboan eta benetako ikaskuntzan oinarrituta ikasle horiei erantzun egokia emateko.

Ildo horri jarraituz, Joseph Renzulli eta Sally Reisenen (1997) Schoolwide Enrichment Model (SEM) ereduaren oinarritutako proposamena da Aberaste Txokoak dakarrena. Esparru baten baitako hiru dimentsioko kubo batez irudikatzen da SEM ereduak, eta zerbitzuen eskaintza, ikastetxearen egitura eta baliabideak hartzen ditu bere baitan.

Funtsean, berriz, benetako ikaskuntza dago. Oinarritzeko lau ezaugarri ditu benetako ikaskuntzak: lehenik eta behin, ikasleak aurrez aurre duen gatazka horrek ikaslearekin lotura izan behar du (esparru pertsonala); bigarrenik, irtenbide askoko gatazkak izan behar dute (sekula ez irtenbide bakarrekoak, errealitatean ez baitaude horrelakoak); horrez gain, benetako metodoetan oinarrituta askatuko da korapiloa, profesionalen lan-pro-



zesuan oinarrituta; eta, azkenik, norbaitentzat eta zerbaitetarako (publiko errealak) izango diren zerbitzu edo produktuak sortzera bideratuko da. Etorkizuneko profesionalen eredueta-za hurbilduko da, hortaz, lan egiteko modua.

#### Lehen dimentsioa: metodologia

Lehen dimentsioa: metodologia  
Gela barruan Aberaste Txokoa sortzea litzateke lehen pausoa. Aldaketak pixkanaka etorriko dira, eta, zailtasun eta mugen aurrean, hezkuntza-komunitatearentzako lehen pausoa litzateke.

SEM ereduari jarraituz, zerbitzuen eskaintza (lehen dimentsioa) bermatzeko, hiru atal hartu behar dira kontuan. Aurrena, gelako ikasle bakoitzari gaitasunen *portfolia* egin beharko litzaioke. Ikaskuntza eta irakaskuntza pertsonalizatuko baditugu, ikaslea ezagutu behar dugu ezinbestean, eta horretara dator gaitasunen *portfolia*. Horrela, ikasle bakoitzaren indarguneak, interesak eta ikaskuntza-estiloak ezagutuko ditu irakasleak (bide batez, irakasle hitzaren egokitasuna ere zalantzan jarri nahi nuke, irakasten duen figura horretatik ikaskuntzan laguntzen duen bidelagun izatera pasatzen baita, baina hitz hori erabiliko dut ulermena errazte aldera). SEM ereduak berak osatuak ditu hiru esparru horiek arakatzeko txantiloiak. Halere, informazio asko bil daiteke behaketekin eta elkarrizketekin.

“Ikasle bakoitza” esatean, ikasle guztiez ari gara kasu honetan. Izan ere, gero azaltzen saiatuko naizen

moduan, ikasleen mugimendua izan dezake ondo garatu eta hedatuz gero (ez soilik ikasle finkoak), Aberaste Txokoa bizia baita.

Bigarrenik, ikasleak Aberaste Txokora joan ahal izateko, beharrezkoa da curriculum trinkotzea; ikasleak dakiena curriculumetik kentzea. Denbora eta energia eskaintzea dakar, bai irakasleen aldetik eta bai ikasleen aldetik ere; baina, alderdi guztiak prozesuarekin ohitzen direnean, estrategia egoki bilakatuko da beste ekintza batzuetara bideratu daitekeen denbora aurrezteko. Ikasleak dakarzkion onura guztiak ahaztu gabe. Eta irakasle den irakurleari galdera bat egin nahi nioke: curriculumean jasotako guztia oinarritzeko da, gaitasunei edota edukiei erreparatuta? Gero, curriculum trinkotzean, ikastetxeko hezkuntza-proiektuan txertatu behar dira egindako egokitzapenak.

Hirugarrenik, zerbitzuen eskaintzaren atala bukatzeko, aberastutako ikaskuntza eta irakaskuntza leudeke. Benetako ikaskuntzan oinarritutako metodologiari jarraitu beharko zaio Aberaste Txokoaren baitan. Horrenbestez, Joseph Renzulliren Aberaste Eredu Triadikoan (Renzulli, 1978) oinarrituta, hiru motatako jarduerak egingo ditu ikasleak:

- Ikerketa edo esplorazio orokorreko jarduerak: ezagutza handitzea dute xede. Ikastetxe askotan horrelako jarduerak dira nagusi gaur egun.
- Talde-prestakuntzarako jarduerak: benetako profesionalen



jarduteko moduetara hurbiltzeko ekintzak lirateke. Prozesua azpimarratzen dute, eta “nola egiten da hori?” eta horrelako galderei erantzuteko balio dute.

- Benetako gatazkak ikertzeko banakako nahiz taldekako jarduerak: problema bilatu, enfokatu eta ikertu egingo du ikasleak edo ikasle taldeak.

Gainera, egitura horrek aukera ematen du errealitateko beste esparru bat naturaltasunez erreproduzitzeko, Aberaste Txokoaren malgutasuna baliatuz; laguntza eskatzen duten pertsonen eta ematen duten profesionalen ari naiz. Ikasleren batek laguntza nahi badu (akademikoa, emozionala, soziala...) eta beste ikasleren bat behar duen horretan laguntza emateko prest badago, Aberaste Txokoak emango die elkarlanean aritzeko espazioa, eta irakasleak, laguntza bideratzeko gidaritzatza.

### **Ikustetik planifikatuz egitera**

Aberaste Txokoan irakaslearen funtzioa zein den galde dezake norbait. Bada, alde batetik, aholkularia izango da, ikasleentzat gidari-lanak egin beharko dituen. Horrek ideia berrietara irekita egotea ekarri behar dio irakasleari, ikasleak erabakiko baitu zein bideri jarraitu nahi dion. Alegia, ikasleak berak planifikatuko du gehienbat bere egitekoa. Izan ere, AGHko ikasleek planifikatzeko gaitasun handia dute, eta, gainera, sorme-

nez planifikatzekoa. Halere, antolaketak eta koordinazio-plangintzak eta bilera eraginkorrak egin ahal izateko heldulekua izango da irakaslea; bai eta baliabideak lortzeko eta ekintza-planak gauzatzeko heldulekua ere. Era berean, ikasleentzako proiektuak desafiatazailak izango direla bermatzen ahalegindu behar du irakasleak, ekintzen konplexutasuna zainduduz. Horretaz gain, ikerketa-estrategietan laguntzaile izan behar du irakasleak; ikerketaren mundura sartu ahal izateko, lehen bultzada eman beharko dio ikasleari, eta lan-funtzionamendua, teknikak... nolakoak diren argituko dio.

Sozializazio-estrategietan ere, arnasa eman behar die irakasleak ikasleei. Besteak beste, AGHko ikasleek lanean bakarka aritzeko joera izan ohi dute, eta jarduerak egiteko moduen arteko oreka hori zaindu behar du. Ikasle bakoitzarentzat aberaste- edo orekatze-txantilo bat erabil dezake horretarako, proiektu bakoitzaren arloa edo gaia, landutako adimen-alarriak, jarduera mota, lan-metodologia, publikoa, eta abar aintzat hartuz eta orekatzen saiatuz. AGHko pertsonen, duten jakin-minari esker, duten dena ematen dute, gaitan gustura eta motibatuta daudenean, eta trebatzen lagundu behar zaie hor, alde batetik, baina, bestetik, beren interesak hedatzen lagundu behar zaie. Bestalde, sormenari ateak irekiko dizkion irakaslea behar dute alboan adimen-gaitasun handiko ikasleek.

Benetako ikaskuntzaren ezaugarrietako bat gogoan hartuta, irtenbide posible askotako gatazkak landuko dira, eta, hortaz, ideia berriak ontzat emateko prest egon beharko du irakasleak, askotan berak hautatutako irtenbideak ez baitira ikasleak hartutako ber-berak izango (agian, ezta antzekoak ere).

Gogoratu nahi nuke atal honetan agertu diren kontzeptuak lotesleak direla, multzokatuta daudela, eta denek elkarrekin lan egiteko era bat osatzen dutela. Ikerketako teknikak azaltzeko premia dagoenean, aintzat hartu behar dira, esate baterako, ikaslearen interesak, ikaskuntza-estiloak, indarguneak, egokitutako curriculumak, benetako metodoen erabilera...

### **Bigarren dimentsioa: baliabideak**

Hori guztia aurrera eramateko, nahi-taetzkoak dira baliabideak (bigarren dimentsioa), bai giza baliabideak eta baita baliabide materialak ere. Lehenik eta behin, AGHko ikaslearen errealitatearekin kontzientziatuta egon behar du hezkuntza-komunitateak. Eta, alor horretan, topiko asko ditugu gaur egun oraindik. Handienetarikoa bat, inola ere justifikatuta ez dagoena, hau da: adimen-gaitasun handikoak beren kabuz moldatuko direla pentsatzea. Indarrean dagoen hezkuntza-legeak ez ditu hezkuntza-premia bereziko ikasleak hartzen. Gainera, ezinbestekoak dira adimen-gaitasun handiko ikaslearen ezaugarri eta premietan prestatutako irakasleak ere, nola ez. Aberaste Txokoa bera aberasten joateko, ahalegin handia egin behar da irakaslearen prestakuntzan. Gaitasun handiko ikasleekin lan egiten duten irakaslearen esku-hartzeari buruzko hausnarketa eta kritika sustatu behar dira, arlo honekiko interesa eta kontzientziatzea oso azalekoak direlako oraindik ere.

Oinarri horietatik abiatuta, aberaste-taldea osatu behar luke Aberaste Txokoa abian jarri nahi duen ikasleak. Hezkuntza-eragileek giza baliabideen eskasia azpimarratzen duten egunotan, hasiera batean nahikoak izan daitezke gelako tutorea edo tutoreen ordezkari bat (gela batean baino gehiagotan probatzea erabakitzen bada), hezkuntza



bereziko orientatzailea eta adimengaitasun handietan jantzita dagoen profesional bat. Interesgarria izan daiteke AGHko seme-alabak dituzten gurasoen parte-hartzea ere. Baliabide materialen alorrean, ezinbestekoa da Aberaste Txokoan IKTak eskuragarri izatea. Eta ikasleek berek kudeatuko luketen sailkatzaile bat ere lagungarri izango da, eskuartearen darabilten materiala ordenatzeko.

### Hirugarren dimentsioa: ikastetxearen egitura

Aurreko bi dimentsioei erantzuteko, ikastetxeak antolaketa egokitu beharko du, Aberaste Txokoaren funtzionamenduan laguntzeko, haren jarraipena egiteko eta txoko hori hazten eta hobetzen joan dadin errazteko.

Gela berrantolatzea dakar, alde batetik, hots, espazio fisikoa helburu berrietarako fintzea. Jarriko diren baliabideek antolaketa muga dezakete, eta kontuan hartu beharko da hori. Aberaste Txokoa martxan jartzeak berrikuntza nabarmena ekar dezake zenbait gelatan, eta ikastetxe bakoitzak erabaki beharko luke nola egin nahi duen. Nolanahi ere, proposamen bat egitera ausartu nintzen nire lanean: hasiera batean, ikasgai batera mugatzea Aberaste Txokoa, eta, ikasgaien ordutegiak zurrinak diren kasuetan (gehiegi izango dira oraindik ere), dagokion denboraren % 80an abiatzea txoko berria. Kontuan hartu behar da AGHko ikasleak, gainerako ikasleekin konparatuz gero, ikaragarri azkar hartzen eta barnerritzen dituela kontzeptu berriak. Ohiko curriculumaren alderdi nuklearretan aldaketak eginda izan behar dituzte ordurako ikasleak.

Azkenik, gomendagarria da ikastetxeak harilkatutako beste zenbait zerbitzu berezi eskaintzea, adimengaitasun handiko ikasleen esku-hartzea osatzeko. Dena den, pausoka egin daiteke. Zerbitzu berezien baitan kokatuko genuke AGHko ikasleentzako, haien gurasoentzako eta irakasleentzako aholkularitza-zerbitzua. Horrela, mahai gainean jarriko lirateke ikasleentzako banakako aholkularitza (batez ere, alderdi

sozial eta emozionalak eta ikaskuntza motak ardatz hartuta), irakasleentzako orientazio profesionala, guraso edo tutoreentzako aholkularitza eta ikastetxearen, familiaren eta beste elkartearen arteko elkarlana.

Talentuaren garapena baldintzatu dezaketen eskolaz kanpoko indarguneak (familia, komunitatea eta gizartea) kontuan hartu beharraz ohartuta, AGHko ikasleen inguruan sortzen den informazioa elkarrekin trukatzeko gunea ere izango da.

### Hobetzeko proposamenak

Aberaste Txokoa abiatuta, aberaste-taldea espezializatzea litzateke etorkizun hurbilera begirako eginbeharretako bat. Aberaste Txokoaren sostengu nagusia indartu behar da: prestatuta dagoen aberaste-taldearen dinamika zehaztu behar litzateke, martxa har dezan eta, horrela, prestatuntzari eta esperientziari esker, ardurak era naturalean har ditzan. Scholwide Enrichment Model eta helburu horrekin berarekin sortutako beste hainbat proiektu ezagutzeak denbora eskatzen du. Jatorrizko ereduak ezagutu eta ikertu ondoren, ikastetxe bakoitzera egokitu behar dira, Aberaste Txokoa garatzen joatea nahi badugu. Gero eta gehiago dira ikaskuntza pertsonalizatzeko proiektuak (baita Euskal Herrian ere), eta horiek ere bidelagun izan beharko genituzke.

Horrez gain, aberaste-taldearen ardurapean, garatzen joan behar du zerbitzu berezien alorrak, lehen adierazitako moduan. Eta bere baitan hartuko ditu hauek:

- Gurasoentzako aholkularitza: eskura jarriko den laguntza-taldearen sarea osatu behar da. Alegia, adimengaitasun handiekin lanean diharduten elkarteak, fundazioak... zein diren jasoko du aberaste-taldeak zerrenda batean, eta, ahal den neurrian, ezagutu egingo ditu. Izan ere, aholkuak, informazioa eta prestatuntza eskaintzen dizkiete gurasoei horiek.
- Ikasleentzako aholkularitza: AGHko ikasleentzako bilguneen sarea osatu behar da. Ikasleak

antzeko ezaugarriak dituzten ikasleekin biltzea ahalbidetzen dute.

- Giza baliabideen sarea irakasleentzat: era berean, irakasleei aholkuak, informazioa eta prestatuntza emango dizkieten elkarteak, enpresak... ezagutu behar ditu, gero praktikak hobetzeko.
- Adimengaitasun handiak dituzten ikasleentzako eskolaz kanpoko jarduerak: prozesura eta produktura bideratutako aberastea (Fernández eta Sánchez, 2010) eskainiko da. Ikasleak produktu errealeak eta sortzaileak egin ditzan, askotariko pentsamendu-trebetasunak garatzea da helburua, hala nola teknika hauek: gatazkak ebazteko teknikak, pentsamendu dibergentea bideratzeko estrategiak edo estrategia metakognitiboak.

Bestalde, Aberaste Txokoa etengabe ebaluatu eta hobetu behar da. Balio duenari helduko zaio, eta aldatzekoa egokitu beharko da.

Ikasle guztiei begiratuta, zailtasunei erreparatzeari utzi eta indarguneei begira jartzeko lehen urratsa izan daiteke Aberaste Txokoa. Beste ikuspegi batetik begiratuta, adimengaitasun handiko ikasle batzuk inor ohartu gabe pasatu ohi diren bezala, zailtasunak dituztenak ezberdintasunak zuzentzera bideratutako indargarrien eraginpean egon ohi dira, ikasle horiek dituzten beste era bateko gaitasunei erreparatu gabe. Ikasle horiek ere gaitasun handiak izan ditzakete ikastetxeoko ohiko curriculumetik kanpo geratzen diren zenbait arlotan, eta ez dira garatzen. Horrelakoak eta beste hainbat kasu tarteko, inklusioaren ikuspegiaren barneratutako Aberaste Txokoen eremu naturala ikastetxeoko mugak gainditzera eta komunitate osoa barnean hartzen duten ereductara bideratu behar litzateke. Aberaste Txokoa gelako dinamika orokorrera zabaldu behar litzateke, eta, beraz, gela horrek berak izan behar luke Aberaste Txoko, ikaskuntza pertsonalizatu eta induktiboan oinarritutako ikaskuntza litzatekeelako gela horretakoa. Ikastetxe bakoitzaren esku dago hortik aurrerakoa.

# GALDEIDAZU

## ZER IZAN BEHAR DUGU KONTUAN, IKASGELETAN NERABEEKIKO ELKARBIZITZA ETA HARREMANA OSASUNTSUAK IZAN DAITEZEN?

**B**iziki kontent heldu diot HIK HASIko nire lagunek nera-bezaroari buruz artikuluxka hau idatz dezadan luzatu didaten gonbit honi. Errealitate bati buruz zintzoki mintzatzeak errealitate horretan murgildu beharra eskatzen duela-eta, izan ginen gaztearen errealitate askotarikoan sartu-irten ttipi bat egiteko aukera paregabea zaidalako, beraz, honako hau. Geu ere gazte izan gineneko bizipenaren gogorapena da nerabeen mundua ulertu nahi dugun helduok eskura dugun tresnarik hoberenetako bat, eta memoria-ariketa xume horretan ikasiko duguna, gure jardunaren oinarrian ezarri beharreko jakintza egiatia. Gure pasioak, maitemina, galerak, abandonuak, une batzuetan hartu gintuen hiltzeko gogo bizia, bakardadea, ilusioak, gorabehera emozionalak...

Geure buruan arakatu eta barnean lozorroan bizi zaigun nerabea esnatu behar horretan datza, gainera, gazteagoekiko harremanak gu hazteko ematen digun aukera paregabea. Izan ginen eta jada ez garen ameslari eta errebeldearen ahotsaren xuxurla ekartzeak gure bizitza askotan mugiezinen zutabe irmoegiak astindu eta kolokan jartzera eramango gaitu. Nerabeekin aritzeak aukera ezin



### ANE ABLANEDO IRAKASLEA ETA PSIKOTERAPIAN ADITUA



hobea eskaintzen du egunero bizitzaren lokatzean murgiltzeko. Eta hori ez daramagu ongi, ez beti bederen, eta ez denok. Gaztea zerbaitek definitzen baldin badu, poroetatik darion bizi-izerdiak definitzen du; bizitzaren zipriztin horietan noraino busti nahi dugun edo noraino nahi dugun hori saihestu, horren aurreko gure jarrerak baldintzatzen du, neurri handi batean, sartu-irten horretatik biziberriturik –gazteturik– edo zaharturik aterako garen.

#### **Nerabezaroa, helduarorako zubia**

Gure jarreraren araberakoa da, hortaz, nerabeekiko lana arazo ala opari moduan bizitzea. Niretzat zinez opari ederra da egunero ukan ahal izatea deabrutxo maitagarri hauekiko harremana. Baina, horrela bizi ahal izateko, ezinbestekoa da helduok gure historia psikoafektiboarekin gutxieneko maila batean adiskidetuta egotea, ezinbesteko baldintza eta ezaugarria baita hori haurren eta nerabeen heziketa-prozesuan lagun egin nahi duen edozeinentzat.

Haurtzaroren eta helduaroren artean zubi-lana egiteko ardura daukan denbora-tartea da nerabezaroa. Haurtzaroa bukaerara iristen ari denean, helduaroa dator jada horren haurra

ez den haurraren etxera ate-joka, tok-tok: *Nor zaitugu? Zer asmo duzu hurrengo urteetarako?*... Horrelako galderak egiten dizkio. Nerabeak *Nor naiz ni* galdera existentzial handi eta ezinbestekoari erantzun behar dion denbora-tarteari esaten diogu, beraz, nerabezaroa. Helduaroan identitate biopsikosozial aski sendoarekin barneratu ahal izatea dago nerabeak jokoan duen erronkaren muinean; benetan lortuko duen edo ez... Etapa horren bizipenaren nolakotasunaren arabera edukiko du erronkak arrakasta ala porrota. Helduaroan sartzeak ez baitu inola ere adierazten heldutasuna erdietsiko duenik, bistan denez. Gauza jakina da bizitzaren kudeaketa osasuntsu baterako nor garen ongi jakiteak duen garrantzia, eta, horregatik, eskuzabalago behar luke gizarteak nerabeari eskaintzen dion denboraren luzeran eta kalitatean, bere bidea osoki burutu dezan. Benetako heldutasunak barnean hartzen dituen gaitasunek beren denbora eta baldintzak eskatzen baitituzte.

Eginkizun zail eta erabakigarri horretan murgiltzeko eta, beraz, tamaina horretako erronkari ekin ahal izateko, zer bagaje daukan berrikustera ere jo behar izaten du nerabeak. Horrela, etorkizunari gogotsu eta ilusioz begiratzen dion bezala, atzera begira ere jarri beharko du, bidean abiatu ahal izateko daukan hornigaien eta beharrezko baliabideen bila. Haurtzaroaren azken egituraketa den denbora-tarte hori prozesuan zehar zer lortu duen eta zertan huts egin duen berrikusteko moduan planteatuko du, beraz, gazteak.

Horregatik, garapen-prozesuan zehar izan diren zailtasunak, ezintasunak eta gabeziak, heldutasunera bidean lortu ez diren konkisten hutsuneak edota bizkarrean luzaroan eramandako frustrazio eta porrot zaharrak indar handiz azaleratuko dira nerabezaroan. Eta horretan datza, hein handi batean, nerabe askoren eztanda eta gatazka kritikoren arrazoia eta jatorria. Nerabeak dena eztabaida-mahaira ekartzeko duen joera ere dena galbahetik pasatu behar horretatik sortzen da: ongi dakigunez, bizitzaren, familiarren, eskolaren eta gizartearen gaineko begirada kritiko zorrotza du nerabeak,

gure ondoezerako, askotan.

Haurtzaroa gizaki heldu bilakatze beharrezkoa den garapenerako denbora da. Giza garapena hainbat etapatan gertatzen da, eta naturak, fase horietako bakoitzean, gaitasun edo ezaugarri zehatz batzuetarako aukera jartzen du garatzen ari den haurraren esku. Naturak nahikoa egiten du, beraz, aukera emanez, eta hazten ari den haurraren inguruari dagokio gaitasun horiek lora daitezen baldintzak ezartzea. Horrela, garapenaren faseetatik haur guztiak pasatzen badira ere, bakar batzuek baizik ez dute lortuko giza espeziearentzat programatua den potentzialtasun guztiaren konkista. Haurrak gara daitezen Mendebaldeko gure gizarte honek ezartzen dituen baldintzak ez baitira inondik ere egokienak gizakiak osasuntsu haz daitezen laguntzeko. Osasunaren orde, psikopatologiarako aukera gero eta agerikoagoa duen *normaltasuna* barreiatzen du.

#### Arazoen prebentzioan azpimarra

Nerabezaroak berez ekarriko du haurrak lortutako orekaren nolabaiteko desegonkortzea. Heldu bilakatze igaro beharrezko prozesu osoan zehar gertatu bezala, etapa bat atzean utzi eta hurrengoari heltzeko muga zeharkatu beharrak berez baitakar nolabaiteko krisia. Baina krisiaren maila, ondorioa eta eragina ezberdina izanen da haurtzaroan zehar oreka sendoa eraikitzea lortu duen nerabearen edo oreka hauskor baten babes ahularen pean dagoen horrengan. Nerabearora iritsita haur bakoitzak izan dezakeen krisiaren nolakotasuna eta neurria erabat aurreikus daiteke, beraz, eta, horregatik, arazoaren prebentzioan azpimarra egiten duen haziera-eredu bat aldarrikatu behar da lehenengo ezinbestean, arduraz jokatu nahi badugu.

Nerabezaroak egiten duena ez baita arazo berriak sortzea, lehendik azpian baina sarri ezkutuan zeuden horiei ikusgarritasuna ematea baizik. Haurtzaroan zehar eraikitako defentsa-sistemaren desegonkortzea gertatzen da, hortaz, bai eta horrekin batera azpian latente zeuden sintoma fisiko askoren edota jokabidearekin lotutakoen azaleratzea ere; lehenago agian ikusi

**Nerabeak 'Nor naiz ni' galdera existentzial handi eta ezinbestekoari erantzun behar dion denbora-tarteari esaten diogu nerabezaroa. Helduaroan identitate biopsikosozial aski sendoarekin barneratu ahal izatea dago nerabeak jokoan duen erronkaren muinean; benetan lortuko duen edo ez... Etapa horren bizipenaren nolakotasunaren arabera edukiko du erronkak arrakasta ala porrota.**

ez arren, jada eragiten ari baitziren. Identitatearen azken zehaztapena edo definizioa burutu behar denez, ezin izango zaio inoiz gehiago *ni* horren nolakotasunari ez ikusiarena egin. Ageriago geratuko da osatzen eta hazten ari den *ni* horren ahulezia edo sendotasuna. Niaren hauskortasunaren kontrako txerto eraginkorra haurrak inguruan dituen pertsona garrantzitsuekin afektiboki lotura estuak ezarri ahal izatea da. Haurtzaroan atxikimendu segurua eraiki izana, alegia.

Nerabezaroak azalera ekarri litzakeen arazo horiek indar handiz agertuko dira, gainera, nerabezaroaren ezaugarri ere badiren aldaketa hormonal indartsuak izango direlako eta karga libidinal handiak oso bizkortuta eta indartuta datoze-lako. Nerabezaroan gertatzen diren eztanda askoren ikusgarritasuna gaztaroaren ezaugarri horri leporatu ahal zaio. Haurtzaroaren lehen etapetan gertatu bezala, gorputzak aginduko du, berriz ere, nerabearen bizitzan. Oraingoan, baina, bat-bateko aldaketa erraldoiak gorputzaren bulkada are uholde ere bilakatuko du, eta erraz egingo dio gainez arrazoiaren bitartez alderdi fisikoa baretzeko nerabeak egin lezakeen edozein saiari. Gorputzak hartzen du agintea, eta garunaren

Nerabeen errealitatea ulertzeak berebiziko garrantzia du, haien ondoan egoki kokatuko bagara. Bizitzen ari diren une existentzialak oso baldintzatuta dagoen errealitate hori baitago maiz daukaten jokabidearen oinarri-oinarrian. Baina, benetan helduen eta nerabeen artean askotan ezartzen den hesiaren eta ulertu ezinaren zergatiaren bila abiatu nahi badugu, helduon edo eskola-sistemaren ezaugarriek ere erreparatu behar genieke.

Gure gazte gehienek euren nerabezaroaren denboratarte handiena institutueta-ko pareten artean igarotzen dute, edo institutueta-egiten zaien eskakizun erraldoiari aurre egin ahal izateko ikasi behar horretan. Jakin beharko genuke honezkero gehiegizkoak direla inposatzen zaizkien baldintzak eta erritmoak. Askok krak egiten dute. Ezgai diren sentimendu erabat injustua erraietaraino txertaturik bukatzen dute askok eskola-ibilbidea, berez asebetegarria baino izan behar ez lukeen ikasketa-prozesua, alegia.

alde kortikalak garrantzia galduko du, zirrarez edo bulkadez arduratzen den alderdi horren mesedetan. Gorputzean aldaketa erraldoiak gertatuko dira; eta horiek ulertzen asko lagun lezakeen buruko arazoimena, ordea, eskas gertatuko da. Sistema fisikoaren eta psikikoaren artean, banaketa dramatikoa gertatuko da.

Norberaren baitan ongi edo gaizki sentitzeko hormonen gorabeherak daukaten zerikusia ongi ulertu ahal izateko, aski genuke menopausia edo antzeko prozesu hormonal indartsuei begira jartzea. Nerabeengan gertatzen denak ez dauka horretan parekorik, baina, hori horrela izanagatik ere, txikiak dira inguruak gertakari horren aurrean erakusten dituen ulermena eta etorkortasuna. Nerabearen pertzepzio-sisteman ere eragiten du, gainera. Prozesu hormonalaren uholdearen eta garunean prozesu linbikoa nagusitu izanaren arteko batuketak oso komunikazio modu berezia dakar emaitzat. Ia horrek soilik ulertaraz diezaguke nerabe asko eta askoren jokabideetako ugariren zergatia.

#### **Doluaren gaia, gakoa**

Nerabezaroaren beste ezaugarri garrantzitsu bat dolu-garaia da. Aberastury eta Nobel psikoanalistek jada klasiko bilakatutako ikerlanean ongi azaltzen dutenez, hiru dira nerabeek jasan beharreko galerak: haur zirenean zuten gorputza, haur zirenean zuten identitate-rola eta haurtzaroan gurasoen zeukaten irudia. Horren garrantzitsuak ziren helduleku eta ziurtasun-iturrien galerak noraez-egoera batera darama askotan nerabea. Horregatik eta jadanik aipatuak diren arazoengatik, euren buruarekiko arrotz-sentimendu handia sortzen zaie barrenean, oro har bakardade-sentimendu handia dakarkiena. Arrotz sentitzen dira, eta garrantzi handikoa da une horietan guk euren arrotzaren horretan onartzea eta lagun egitea.

Nerabeen errealitatea ulertzeak berebiziko garrantzia du, haien ondoan egoki kokatuko bagara. Bizitzen ari diren une existentzialak oso baldintzatuta dagoen errealitate hori baitago maiz daukaten jokabidearen oinarri-oinarrian. Baina, benetan helduen eta nerabeen artean askotan ezartzen den

hesiaren eta ulertu ezinaren zergatiaren bila abiatu nahi badugu, helduon edo eskola-sistemaren ezaugarriek ere erreparatu behar genieke. Lehenik eta behin, garrantzitsua delako gogoratzea ez dagoela beste batekiko erlazioan gertatzen ez den gatazkarik, eta zentzu horretan beti hartu behar delako kontuan onerako eta txarrerako harremanean eragin dezakeen beste pertsona horren aldagaia. Irakasle garen aldetik, gure jokabideek eta jarre-asko lagundu dezakete gatazka bat ekiditen, bideratzen edo areagotzen.

Gainera, geurea beste pertsona batekiko harremanean hazten eta garatzen den espeziea izanik, beste horren nolakotasunari begiratzea saihetsezina da, garapen-prozesuaren ondorioz sortu den *produktuaren* kalitatea ebaluatzeko orduan. Nerabeei dagokienez, beraz, geu gara fabrikatzaileak eta, beraz, erantzuleak, gizartearen ordezkari edo eragile garen heinean. Gure ikasgela orotan topatzen dugun nerabe arazotsuaren haragian gautatzen da askotan geure gizartearena baino ez den munstroa. Ez dugu maite horrelakoek aurrean jartzen diguten ispiluan geure buruaren isla ikustea. Baina, gustatzen ez bazaigu ere, guri dagozkigun ardura eta erantzukizuna onartu behar ditugu, itzultzen diguten irudia geure haziera- eta heziketa-eredu eskasaren ondorio baino ez denez. Uzten dizkiguten seinaleetan irakurtzen jakinez gero, oso txikitatik adierazten digute haurrek gauzak ez doazela ongi; baina, gure itsutasunean, nerabeen indarrez jantzi behar dute krisiek, mezua irakurtzen hasiko bagara eta, gure gorrerian, garrasika ari zaiguna gizartea dela ohartuko bagara; ez dela zoriontsu eta beste bide batetik ibiltzen lagun diezaiogun ari zaigu otoika.

Heziketa-prozesuan zehar, haurrek gero eta gehiago topatzen dituzte euren beharretara egokitzen ez diren ekosistemak. Eta mina eragiten du horrek. Arinagoa edo bortitzagoa, ikusgarriagoa edo estaliagoa, baina mina, azken batean. Institutueta-ko ikasle arazotsuetako asko euren historia psikoafektiboan igarotako bidetik jadanik oso kaltetuta irtendako gaztetxoak dira. Ez denak, jakina. Eta zorionez. Baina asko bai, gehie-

gi. Ez nuke nahi arazotsuaren irudia denok buruan dugun ikasle disruptibo, errektibo eta probokatzalearena izatea soilik, nahiz eta bistakoa den profil horretakoak direla beti ikusgarrien egiten zaizkigunak; gure eguneroko eginkizuna gehien zailtzen digutenak, alegia. Erabat otzan eta arauaren segitzaile leial den horrengan, nekez jarri ohi dugu arreta, ikasle onaren potretarekin oso bat egiten duelako, eta sistemari gehien komeni zaion profil psikologikoa bikain garatu duelako, agian. Baina, gazte batek izan beharko lukeen horretatik hainbeste urrundu-ta, bizitasunaren prezio garestia eta bizipozerako eskubide oinarrikoa ordaindu ditu arrakastaren trukean. Eta mingarria da hori ere.

Gure gazte gehienek euren nerabeza-roaren denbora-tarte handiena institutu-tuetako pareren artean igarotzen dute, edo institutuetan egiten zaizen eskakizun erraldoiari aurre egin ahal izateko *ikasi* behar horretan. Lehen aipatutako guztiagatik, jakin beharko genuke honezkero gehiegizkoak direla in posatzen zaizkien baldintzak eta erritmoak. Askok krak egiten dute. *Ezgai* diren sentimendu erabat injustua erraietaraino txertaturik bukatzen dute eskola-ibilbidea, berez asebetegarria baino izan behar ez lukeen ikasketa-prozesua, alegia. Zinez uste dugu hori sentiarazteko eskubidea dugula?

Nerabeez osatutako gela batean sartzeko heldu batek izan behar dituen ezaugarri edo gaitasunen multzoa handia bezain askotarikoa da. Bere buruari begiratzen jakin behar du, ikasleekin suertatuko zaizkion gatazketan dagokion partea identifikatzeko eta onartzeko, bai eta dagokion hori aldatzen jakiteko ere, jakina. Adore puska bat ere behar du, noski. Ez luke inoiz ere ahaztu behar nahitaez eredu izango dela. Onerako eta txarrerako, den horren kutsadura moduko bat eragingo duela, alegia. Saiatu une batez, irakurle, institutu-garaian ezagutu zenuen eta bihotzean txertatuta gelditu zitzaizun irakasle horrek zeuzkan ezaugarriak gogor-ratzen. Ia ziur naiz gogora etorriko zaizun ezaugarrietako bat gutxienez gaitasun emozional edo gizatiarra izanen dela. Konfiantza ematen jakin behar luke, eta konfiantza-giroa ereiten. Ikasketa, dela akademikoa, dela beste arlo batekoa, konfiantzazko harreman batean baizik gertatzen ez den prozesua da. Mugak ere jarri behar dira, jakina. Baina beharrezkoak izango dira benetan garrantzitsuak ez diren edo are zentzugabeak ere badiren muga horiek identifikatzeko gaitasuna eta horien gaintetik pasatzeko kemena eta ausardia ere, askotan nerabeen eta azken batean pertsonen eskubideen kontrakoa den sistema ho-

nen erabateko adiskide izatea ez baita gaixotasunaren zantzua baino. Oso kontuz ibili beharko dugu ikasleen estimuan eragin ditzakegun zauriekin, ez baitaigu horrelakorik zilegi, inola ere. Eta kontuz ibili behar dugu kasu askotan hurbilegi eta eskura izango dugun boterekeriaren tentazioarekin ere. Errespetuz tratatuko ditugu ikasleak, bistan denez, eta ongi ulertu behar dugu, beraz, ez dela batere jarrerera errespetuzkoa ikasleekiko ironia edo txantxa sarkastikoak erabiltzea, edo erasokorrak izatea, nahiz eta maila apal batean izan. Ikasleekiko errespetuaren barnean sartu beharko genuke gure eskaintza akademikoaren kalitatea ere. Ororentzat gertatu beharko luke posible ikasketak, denen eskura egon beharko luke hori lortzeak, eta denentzat erakargarria izan behar luke. Intelektualegiak, abstraktuegiak izan gabe, euren bizitzatan baliagarri izango zaizkien edukiak behar dituzte, sormenez moldatuak. Lotura estuak ezartzeko gaitasuna ere izan behar luke, batez ere helduekin loturak ezartzeko ezintasun nabarmena erakusten duten horiekin. Ikasleek erakusten duten horretatik harago eta urrunago begiratzen jakin behar du. Batez ere ikasleen heziketa pertsonalean jarriko du arreta beti, beste ororen gaintetik. Arrasto polita uztea izango du azken helburu.





# Giza eskubideak eta gatazken kudeaketari buruzko

## online ikastaroa

**Sarrera:** Gero eta mundu globalizatuagoan bizi gara. Komunikabideen eta teknologia berrien eskutik, mundu osoan gertatzen diren gatazkei buruzko informazio anitza eskura dezakegu. Baina, gure ikasleek informazio hori guztia eta gatazka horiek ondo ulertzeko gaitasunak dituzte? Are gehiago, gatazka horiek giza eskubideen ikuspuntutik interpretatzeko gai dira?

Ikastetxeak arlo honi buruzko zuzenbideak ikasleei eskaintzea erabateko garrantzia dauka, baina horretarako tresnak eta baliabideak behar ditu. Horretaz gain, giza eskubideak ikastetxeetan presente egoteko baldintza garrantzitsuenetariko bat bizikidetzako giro egokia lortzea da.

Hau guztia kontutan izanda, giza eskubideak eta bakerako hezkuntza sustatzeko **ALBOAN**ek online ikastaro honetara gonbidatzen zaitu. Ikastaroan zehar, giza eskubideen eta bakerako hezkuntzaren oinarri nagusiak ezagutuko dituzu, eta zure hezkuntza esparruan gai horiek lantzeko baliabideak eta ideiak jasoko dituzu. Halaber, bizikidetzako giroa hobetzeko eta zure ikastetxean sortzen diren gatazkek era positibo batean kudeatzeko jakintzak, tresnak eta baliabideak ezagutuko dituzu.

**Helburu orokorra:** Ikastetxeetan giza eskubideak eta bakerako hezkuntza lantzeko oinarritzko ezagutza teoriko- praktikoak eskaintzea.

Hezkuntza arloan sortzen diren gatazkek era positibo batean kudeatzeko ezagutza teoriko- praktikoak eskaintzea.

**Nori zuzendua:** Irakasle goari, magisteritza edo gizarte hezkuntzako ikasleei eta hezitzaileei, orokorrean.

**Baldintzak:** Ordenagailua eta Internet konexioa beharrezkoak dira, hala nola, Internetetik nabigatzen jakitea eta testu prozesadoreen erabilera menperatzea.

Antolatzaileak



ALBOAN



Universidad de Deusto  
Deustuko Unibertsitatea

Laguntzailea



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Prezioa: 50€ • Ordu kopurua: 50

Data: 2016ko martxoaren 1etik  
ekainaren 5erarte.

### Programa:

- 1go blokea: Giza eskubideak eta bakerako hezkuntzari buruzko sarrera (7 o).
2. blokea: Giza eskubideak eta bakerako hezkuntza ikastetxean eta gelan (13 o).
3. blokea: Gatazken kudeaketa positiboari buruzko sarrera (7 o).
4. blokea: Gatazken kudeaketa positiboa ikastetxean eta gelan (13 o).

Oharra: Kurtsoan zehar 2 orduko hautazko bi saio presentzial (martxoan eta ekainan) eta derrigorrezko 4 orduko saio bat (apirilean) egongo dira Bilbon.

### Izen-ematea:

☎ 944 151 135 telefonora deituz edo  
✉ [a.gonzalez@alboan.org](mailto:a.gonzalez@alboan.org) helbidera idatziz, honako datuak emanez:  
izen-abizenak, lanbidea, posta elektronikoa, telefonoa eta NAN zenbakia.

# ARGITALPENAK



**MARTETARRAK ZARAUTZEN**  
Iñaki Zubeldia / Alai Zubimendi

## IBAIZABAL


Martetarrek gogoan dute 1969an Zarautzera egindako espedizioa, eta laster 50. urteurrena izango dela eta, berriz etorri nahi dute Zarautzera, elkarrekin ospatzeko urtemuga. Amerikarrek, ordea, horren berri izan dute eta bahitu egin nahi dituzte martetarrak, haien teknologia aurreratua lapurtzeko.



**BURUA GALDU ZUEN JIRAFa**  
Bertol Arrieta / Concetta Probanza

## ELKAR

Maitemindu, eta burua galdu du jirafak. Leontzio lehoi magoarengana joan da laguntza eske, negarrez. Lepo luze-luzearen amaieran buru berri bat jarriz lagundu dio Leontziok, baina ez da oso abila eta lehen ahaleginean txerri buru bat jarri dio. Lortuko ote du jirafak benetako burua?



**XOLA ETA LAPURRA**  
Bernardo Atxaga

## EREIN

Xolaren txakurraren abenturen bildumako beste ale bat da honakoa. Oraingo honetan Xola nagi-nagi dago etxean etzanda, eta oihu batzuk entzuten ditu eraikineko ezkaratzetik datozenak. Etxeko Bizilagunen Bilera da, eta ahots haserre bat entzuten du: "Lapurrak! Lapurrak dira gure benetako problema!".



**BEEELDUR NAIZ**  
Asun Egurza eta Leticia Garcés

## IBAIZABAL


Artzainak argi esan die ardiei: ez mugitu itxituratik! Ardik argi distiratsu bat ikusi du, ordea, eta zer zen jakin nahi izan du. Baina argiaren atzetik abiatu eta basoan galdu da; iluntasunaren erdian beldurtuta dago. Eskerrak hontza agertu den eta babestu duen. Eguna argitzean gauzak ez direla iluntzean ziruditenak ohartu da Ardi.



**100 KONTU ONDO EZAGUTZEKO ZIENTZIA**  
Batzuen artean

## ELKAR

Liburu honekin gaztetxoak zientziaren mundu liluragarrian murgilduko dira; Zer da Unibertsoa? Zenbat bihotz dituzte olagarroek? Nola laguntzen diete narbalek ozeanografoei? Zergatik da ezaguna Marie Curie zientzialaria? Eta Einstein? Zein da gogorragoa, altzairuzko haria ala armiarma-zeta? 5 eta 9 urte arteko haurrentzat.



**ALIZIA HERRIALDE MIRESGARRIAN**  
Lewis Carroll / Itzultzailea: Manu L. Gaseni

## PAMIELA


Argitaratu zenetik 150 urte pasatu dira ospatzeko, edizio eguneratua osatu dute. Aspertuta zegoen egun batean, Untxi Zuriari jarraituz bestelako mundu batean barneratuko da Alizia. Edari bitxi bat edan, eta 25 zentimetro luze izan arte txikituko da. Hortik aurrera, abentura piloa izango ditu bidean agerituriko hamaika pertsonaia xelebretarekin.

# PROPOSAMENA

## GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA

### Gipuzkoako parke naturalak klik batean

Gipuzkoako Parke Naturalerako parketxeek eta interpretazio-zentroek bat egiten dute Gipuzkoako Parketxeen Sarean. Hala, horien inguruko informazio guztia klik bakar batean eskuragarri dago sarean, parketxe-sarearen webgunean, 'parketxesarea.org' helbidean. Gune horretan, parketxeetako eskaintza modu bateratuan ikus dezakete erabiltzaileek.



'Parketxesarea.org' webgunearen hasierako orria.

Ingurumenaren gaineko heziketa eta natura-inguruneen ezagutza sustatzea eta, modu horretan, ingurumenarekiko errespetuzko balioak bultzatzea, asmo horiek ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Kutxak eta Ataun, Aia nahiz Oñatiko udalek sorturiko Gipuzkoako Parketxe Sareak; eta zeregin horretan dihardu 2009az geroztik. Modu horretan, elkarlanaren bidez eta indarrak batuz, Gipuzkoako parketxe eta interpretazio-zentroen lana

koordinatzea eta norabide berean jartzea lortu dute eragile horiek; eta, bide batez, baita parketxe bakoitzak bere aldetik egindako lanaren oihartzuna eta eragina biderkatzea ere.

Naturarekiko heziketa eta ezagutza hori bultzatzeko, naturarekin lotutako aisia-jarduerak eta natura-ingurunearekin bat eginda gauzatzen diren hezkuntza-jarduerak sustatzen ditu parketxe-sareak. Horrekin batera, Gipuzkoako parke naturalen egoera eta premiak hobeto ezagutzeko

ikerketako proiektuak egiten dituzte. Horien guztien inguruko informazioa aurki daiteke parketxeen webgunean, *parketxesarea.org* helbidean.

#### Informazio osatua eskura

Klik bakarrean, Gipuzkoako parke naturalerako parketxeen eta interpretazio-zentroen inguruko informazio zabala aurki dezakete erabiltzaileek webgune horretan.

Esaterako, *Jarduera berezien egitaraua* izeneko atalean, modu batera-



tuan ikus daitezke, hilabetez hilabete, Gipuzkoako parketxe guztietan antolaturiko ekintza esanguratsuenak. Horrez gain, toki propioa du parketxe eta interpretazio-zentro bakoitzak webgunean. Beraz, hainbat parke naturaletako parketxeen webguneak aurki daitezke webgune honetan: Aizkorri-Aratz parke naturalean dauden Anduetza eta Arantzazu parke-teenak, Aiako Harria parke naturaleko Arditurri parketxearena, Aralar parke naturaleko Barandiaran eta Lizarrusti parketxeena eta Pagoeta parke naturaleko Iturrran parketxearena. Parke natural bakoitzaren informazioa eskaintzen da gune horietan, bai eta horietan egin daitezkeen ibilbideen inguruko informazioa ere. Horrez gain, parketxearen nahiz parketxeak antolatzen dituen jardueren inguruko informazioa ere aurkituko du erabiltzaileak: egitarauak, kokapena, argazkiak, harremanetan jartzeko bideak...

### Heziketa, gune guztietan


Helburutzat heziketa hartuta parke-teen antolatzen dituzten ekintzak ere

jasota daude guneetako bakoitzean. Beraz, ikastetxeek nahiz heziketa-taldeek interes handiko informazio zabala dute eskura, eta, horri esker, adibidez, Arditurriko parketxeak ikasleentzat *Izan zaitez historiaurreko gizaki egun batez* lantegia eskaintzen duela jakingo dugu, edo Pagoetako Iturrran parketxeek 2015-2016 ikasturterako hezkuntza-programa bat antolatu dutela.

### Harpidetzeko aukera

Dena dela, informazio hori eskuratzeko, ez da beharrezkoa une oro webgunea bisitatzea. Izan ere, bada harpidetzeko aukera ere.

Hala, erabiltzaileak parketxe buletinera harpidetu daitezke, eta parketxe guztietan egiten diren jardueren informazioa jasotzeko aukera dute horrela, edo, nahiago izanez gero, parketxe zehatz batzuetako jardueri buruzko informazioa jaso dezakete soilik. Horrez gain, parketxe-sareak antolatzen dituen jarduera berezien inguruko informazioa ere jaso dezake norberak bere posta elektronikoa, horretarako eskaera egiten badu.



### GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA

#### ZEIN:

- Anduetza parketxea (Aizkorri-Aratz)
- Arantzazu parketxea (Aizkorri-Aratz)
- Arditurri parketxea (Aiako Harriak)
- Barandiaran parketxea (Aralar)
- Lizarrusti parketxea (Aralar)
- Iturrran (Pagoeta)

#### ZER:

Parketxe bakoitzak antolatzen dituen jardueri buruzko informazioa; eta naturarekin lotutako aisia-jarduerak eta natura-ingurunearekin bat eginda antolatzen diren hezkuntza-jardueri buruzkoa.

#### NON:

[www.parketxesarea.org](http://www.parketxesarea.org) webgunean.



Barandiaran parketxean hurrekin eginiko jarduera hezitzailetako bat.

# ATZEKO ATETIK



## NORANTZA

**IRAIA ELIAS** AKTOREA ETA IRASKASLEA

**W**ikipediaren arabera, eskola edo ikastetxea ezaguerak irakatsi eta ikasten diren erakundea da, non irakasleek ikasleei irakatsi eta ikasleek ikasi egiten duten.

Definizio honi erreparatuz gero “ezaguera” hitza da garrantzia hartzen duena. Baina zertaz ari gara *ezaguera* esaten dugunean? Zein garrantzi du egungo hezkuntza-sisteman? Zalantza eta galdera ugari sortzen zaizkit honen inguruan.

Eskola sortu zenetik mendeak pasa dira. Gizartea aldatuz doa, izugarri, baina ikasleek ordu gehiegi pasa behar izaten dituzte oraindik eserita, geldi, isilik, entzuten, erritmo jakin batean eta helmuga batera ahal den moduan iristeko lanean.

Oraindik ikasgaien hierarkizazioarekin jarraitzen dugu. Matematika, hizkuntzak, zientzia gaiak orokorrean askoz ere garrantzitsuagoak dira gai artistikoak baino, hala nola, musika, arte plastikoak, gorpuztutako adierazpena... eta beraz txikitatik argi uzten dugu zerk

duen garrantzia gizartean eta zerk ez. Zerk balio duen lan mundura salto egiterako orduan eta zer den denbora-pasa eta afizioz soilik egin beharrekoa (nahiz eta helduak garenean konturatu lan munduan ez dagoela formula finkorik, eta batez ere egun).

Eta beraz, euren gustuen arabera zein izan daitekeen gizartean izango duten tokia ere bai, nolabait. Zergatik ez da matematika edo hizkuntza irakasten den seriotasun berarekin lantzen plastika edo dantza, adibidez?

Datuak eta informazioa dira ezagueren ardatza. Eta ezaguerak eskolarena. Hauek irentsi eta botatzeko dugun gaitasunean oinarritzen da sarri eskolan dugun arrakasta, eta horren arabera sailkatzen dira askotan haurrak. Emaitzetan zentratzen gara. Presio izugarriak jarritz. Autoexigentzia eta frustrazioak areagotuz.

Asko pozte nau ikusteak gero eta gehiago direla hezkuntza eta eskola ereduaren inguruko hausnarketa-pro-

posamenetan ahalegin ikaragarria egiten ari diren eskolak, eta norbanakoak. Hezkuntzak dituen zirrikituak baliatuz eragiten ari direnak, edo eta bide berriak zabaltzen ari direnak beste oinarri batzuetatik abiatuz. Ekarpenean eginez, bakoitzak beretik, ahal duenetik.

Ederra litzakeelako haurren ahulguneei begira ibili ordez indarguneak indartzen asmatuko bagenu. Bakoitzak dituen baliabide eta gaitasun propioetan izango bagenu konfiantza. Haur bakoitzari bere pasioa eta motibazioa zerk pizten dion deskubritzen lagunduko bagenio, eta horretara bultzatu dena delakoa izanda ere. Sormenean hezten, berezkoa duten ikasteko eta esperimintatzeko gogo eta irrikari jolasten, euren buruan sinisten, adierazten, osasuntsu harremantzen... Asmatzen eta amesten.

Ederra litzake gure begiradaren norantza aldatu eta edukietatik haratago aurrean egunero ditugun haurrengana zuzenduko bagenu.

Bada bide ederra egiteke...



## “Eskoletako Hezkuntza Proiektuak” jardunaldiak

### Ezagutu AMARA BERRI eskola bertara joanez

**OTSAILAREN 26an**, ostirala, 18:00etatik 20:30era

**Aurkezpen orokorra:**

- 35 urteko ibilbidea.
- Hezkuntza Proiektua.
- Ezaugarri metodologikoak.
- Amara Berri Sarea.

**OTSAILAREN 27an**, larunbata, 9:30etik 13:30era

**Gaikako Ibilbideak: aurkezpenak eta bisitak geletara**

- Haur Hezkuntza.
- Hizkuntzen trataera (euskara, gaztelania eta ingelesa).
- Matematika eta Zientzia, eskola aktibotik kompetentzietara.
- Hedabideak eskolan: telebista, egunkaria, internet...

**Mahai ingurua**

- Aurrera begira: zailtasunak, aukerak, erronkak...

**DONOSTIAko MORLANSEko ikastetxean egingo dira jardunaldiak (Morlans pasealekua, 1).**

Informazioa eta izena ematea: **[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)**

*Online aurrematrikula:  
www.hezkuntza.net*

# *gozamenena da elkarrekin Ikastea*

*Aurrematrikula:  
urtarrilaren 25etik  
otsailaren 5era*

*Euskal Eskola  
Publikoa*

**PERTSONA HELBURU**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO